

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko martxoaren 26a / 667. zenbakia



EUSKADIKO OPENA ARRASATEN

DOMEKA GOIZEAN 180 LASTERKARI INGURU
IZANGO DIRA MUSAKOLAN

ORAIN ETA HEMEN: ALDAKETAK EGITAMU OROKORREAN/6 • KULTURA: ESKOLA-ANTZERKIA/13

ARGAZKIA: A. MURILLO

OSASUN GIDA/24



IRAGANA GOGORATUZ

Medikuntza Debagoiengan

Martitzenean, martxoaren 30ean,
20;30ean

Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko
duzu!*

IRAGANA GOGORATUZ
Goienak eta Fagor-ek lankidetzan egindako saioa

Goiena **FAGOR**

KALEINKESTA/ Pleno aretuen ez daue ixten ez berbaldirik ez prentsaurrekorik egitten.




JOE SANTIAGO
Langillie



SUSANA ANDRES
Langillie



ANTTONI ZUBIZARRETA
Langillie



DAVID HERNANZ
Langillie



EVA ORGAZ
Iksaliek



PAOLA CARMONA
Iksaliek

Arrazoirik emun ez badaue, ez nau ados erabaki horrekin. Gutxienez esplika dau xela zergaittik, eta horren arabera ikusiko dogu. Pleno aretue herritar danok ibilli biherko geuke.

Ez nau ados erabaki horrekin, pleno aretuen gauza askoz gehixau egin biherko leukie, eta herritarrek aretue ibiltteko aukerie euki biherko leukie. Ez dakit zein dan arrazoie.

Ez nau ados erabaki horrekin. Holako lekuek herritarrek ibiltteko die. Udaletxie ez da herritarrena ba? Herriko taldiek euren ekintzak egitteko ibilli biherko leukie.

Oso erabaki txarra dala pentsetan dot. Lehen hola-ko gauzetarako ixten bazan, ez dakit oin zergaittik aldatu dauen. Atzerapausue dala pentsetan dot. Udal aldaketiagaittik egin daue?

Erabaki txarra dala pentsetan dot. Herritar danei espresetako aukerie emun biherko leukie. Azken baten, pleno aretue herritar danona da. Herritar danok ibilli biherko geuke.

Ez neuken erabaki horren barri, baiñe ez dakit zergaittik hartu dauen. Ez nau horrekin ados. Herritar danek pleno aretue ibiltteko aukerie euki biher daue- la pentsetan dot.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK ZULOA ESTALI EGIN DUTE Orain dela pare bat aste, irakurle batzuek salatu zuten Otorora eta Munar arteko errepidean zulo handi bat zegoela. Zuloa aspalditik zegoen eta handitzen zihoan, baina inork ez zuen estaltzeko ezer egiten. Bada, *Txaloak eta txistuak* atalean salatu ondoren, Udaleko arduradunek estali egin dute zuloa. Hortaz, txaloak eman beharrean gaude hori egin dutenei.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

Izartu programa

Dirulaguntza eskatu dio Izartu programari Udalak, Makatzeko inguruak egokitze.

KIROLA / 10

Mondra-Aloña derbia

Bihar, zapatua, Mondra-Aloña futbol taldeek derbia jokatu dute Atxabalpen, 16:30ean.

ZAHARRAK / 17

Abaroaren etorkizuna

Udalak Abaroa elkarteari egoitza aldatu gura du, baina erretiratuak ez daude konforme.

ASTEKODATUA

168

BABES OFIZIALEKO ETXE ERAIKIKO DITUZTE

Egitamu Orokorrean hainbat aldaketa egin dituzte. Besteak beste, aditzera eman dute Arrasate Musikalen inguruan babes ofizialeko 168 etxebizitza eraikiko dituztela.

BESTEKEESANA

“1984ko irailean etorri nintzen Ingalaterratik Arrasatera Ahizke-CIMera lan egitera. Arrasatera kasualitatez etorri nintzen, nire asmoa Frantzia lan egitea zelako. Egun baten Ingalaterrako egunkari baten Ahizke-CIMen iragarki bat irakurri nuen: irakasleak behar zituzten. Hara deitu nuen eta Londresen elkarrizketa egin ondoren, kontratu egin ninduten. Hala etorri nintzen (...) Arrasatearrek oso ondo hartu naute, oso atseginak dira. Euskaldunen apaltasuna gustatzen zait. 20 urteotan ez dut inolako une desatseginik bizi izan. (...) Kooperatibismoaren kontzeptua ezagutzen nuen, baina barrutik ezagutzea askoz hobea izan da (...) 1989an euskara serio ikasten hasi nintzen eta oso gustuko dut”

MIKE CHURCH
'T.U. LANKIDE'/2004-03-01

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Zabalo



Urtebete pasa eta gero, zer?

Orain dela urtebete hasi nintzen nire idazlan txiki hauek idazten. Iraikeko gerra hasi berri zen eta nire lehen idazkia horri buruzkoa izan zen, beraz urte bat bete da Iraikeko gerra hasi zenetik. Nire lehenengo idazki horretan gorrotoa aipatzen nuen. Gorrotoa sortuko zuela gerra horrek, beste guztiek bezala. Madrilen gertatutakoa ikusirik (eta gero gertatutakoak ere kontuan izanik) gorroto handia dago. Ez da norabide bakarrek gorrotoa bakarrik, talde askok beste askori diotena ere bai. Baina orain dela urtebete bezala, interes politikoek, humanitarioek baino askoz gehiago balio dutela argi ikusi da. Adiskidetzaren ordez, norberaren aldera erabili da gertatutakoa. Eta horrek oraindik ere onera beharrean, txarrera egin du.

Gogoan daukagu Kosovo? Toki horri buruz aspaldi ezer

entzun gabe geunden. Gerta zitekeen berririk ez edukitzeke berri onak izatea, baina ez. Guretzat ezkutuan egon den gorrotoa dago herrialde horretan. Eta Txetxenian, eta Palestina aldean... eta ez dakit zenbat leku gehiagotan ere bai. Egia da Afrika osoa ahaztu

“Batzuetan sentsazio garratza sortzen zait barrutik, mundua hobera beharrean txarrera ez ote doan”

egin dudala, baina noiz entzuten dugu zerbait Afrikari buruz? Horrelako gauzei buruz isiltasun handia dago. Ez da komeni dena jakitea ere.

Denbora aurrera doa, eta zer? Kosovon lau urte dira gerra amaitu zela,

eta? Afganistanen ere gerra amaitu zen. Iraken, hilaren 20an, urtebete bete da gerra hasi zela. Eta zer lortu da? Gorrotoa murriztu egin da?

Batzuetan sentsazio garratza sortzen zait, mundua hobera beharrean txarrera ez ote doan. Espero dut nire sentsazioa, hori izatea, nirea bakarrik. Eta gustura hartuko nuke oker nengoen berria. Kasu honetan oker egotea abantaila izango litzateke.

Arrasate

Otorora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Imanol Elortza
Amaia Mundiñano

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 26
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09

ZAPATUA, 27
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30

DOMEKA, 28
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15

ASTELEHENA, 29
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99

MARTITZENA, 30
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26

EGUAZTENA, 31
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39

EGUENA, 1
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74

EGUBAKOITZA, 2
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Iguualatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelenehena
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan, ... egun osoa

Arrasate
Astelenehena
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTZAILEAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)

Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

IPIUIN KONTAKETA BEREZIA
Eguenean, apirilaren leian, Udal Liburutegiak ipuin kontaketa egingo du. Alaitz Muro ipuin kontalariak eta Agurtzane Villate ilustratzaileak *Baobab: ipuin afrikarrak* ikuskizuna egingo dute, 18:00etan, 6 eta 8 urte arteko umeendako.

ARANTZAZURA ERROMESALDIA
Apirilaren 3an, Arantzazura erromesaldia egingo dute, bakearen alde. 08:30ean irtengo dira autobusak, Garibaitik eta Musakolatik. 09:30ean, Oñatitik oinez igoko dira. 12:00etan, otoitzaldia egingo dute Arantzazun. Txartelak honako saltokietan eskura daitezke: Zabaleta lurrindegian, Begoña lurrindegian (Musakola) eta Murumendiarrak gozotegian (San Andres).

ODOL ATERATZEA
Apirilaren 2an, egubakoitzera, odol ateratzea egingo dute Fagor Garagartzan, 9:00etatik 13:30era.

UME SAHARRARRAK
Nubi elkarteak ume sahararrak udan Arrasatera ekartzeko kanpaina egin du. Sei familiaren faltan daude. Interesatuok izena eman martxoaren 30a aurretik. Udaletxera jo edo honako telefonora deitu: 661 33 85 87.

AEDrenAGENDA

KULTUR ERROTA
Gaur, egubakoitza, Gilkitxaro antzerki taldeak *Elevator* ikuskizuna egingo du, Jai Zale tabernan, 23:00etan. AEDk eta Kultur Errotak antolatu dute.

FILM LABURREN EMANALDIA
Datorren egubakoitzean, apirilaren 2an, film laburren emanaldia egingo dute Amaia antzokian. AEDk eta Topaguneak antolatuta.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Txatxilipurdi AEDtik irten eta elkarte bilakatu zen

Orain dela hamar urte, Txatxilipurdik elkarte bilakatu eta izaera propioa hartu zuen. Txatxilipurdik zazpi urte egin zituen AEDren baitan ume eta gazte txoendako aisialdirako ekitaldiak antolatzen. Txatxilipurdiko arduradunek argitu zuten helburu berak izango zituztela.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Surzillo"



Sudurzillo.
— Surduzuloak pe esaten dok, surzuloak.

GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Truke programaren balorazioa

Bukatu berri da Mundukidek antolatutako truke programa. Asia, Afrika eta Amerikatik hainbat lagun etorri dira hemengo kooperatibismoa ezagutu, eta eurek dituzten ezagupenen berri ematera. Astelehenean, hilak 29, Andoni Muxikarekin egingo dugu berba bisitaldiaren gainean. Mundukideren komunikazio arduraduna da Muxika. Martitzenean, berriz, *Goenkale* saioko Ainhoa Aierbe aktoreari egindako elkarrizketa emango dugu, 19:15ean.

Argentinako ardoa Arrasatera

Aste honetan elkarrizketa egin diogu Igor Basauriri. Igorrek eta bere bazkide Diego Ardohainek Zilarre enpresa eratu dute eta Arrasaten dute egoitza. Argentinatik ardoa ekarri eta Euskal Herrian saltzen dabilta orain, baina laster hemengo produktuak Argentinan saldu gura dituzte. Zilarre zergatik eratu duten eta asmoak zeintzuk diren azaldu digute. Elkarrizketa zapatu eta domeka goizean eskainiko dugu, baita beste batzuk ere.

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 19	3 °C	
MAXIMOA Eguaztena, 17	24 °C	
ASTEKO EURIA (l/m²)	65,1 L	
	Max. Min. Euria	
Eguaztena, 17	24 °C 6 °C	- Urt
Eguena, 18	16 °C 6 °C	- Urt
Egubakoitza, 19	20 °C 3 °C	- Urt
Zapatua, 20	20 °C 9 °C	- Urt
Domeka, 21	12 °C 9 °C	7,3 Urt
Astelehena, 22	8 °C 6 °C	26,6 Urt
Martitzena, 23	8 °C 5 °C	31,2 Urt

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

EGUBAKOITZA
19:10 Planning Prest

ZAPATUA
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak: Diego Ardohain, Zilarre enpresakoak, Isabel Aramendia, Arrasate, langileek erabakitako herria liburuak; Eñaut Arriaran, Basurto ospitalearen irakasle izandakoa...

DOMEKA
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
10:00 Euskadi Irratiko albistegia
10:06 Igo Autobusera magazina: merideak, elkarrizketak, zozketak...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia
11:06 Igo autobusera magazina
11:30 Arrasate Irratiko albistegia
11:40 Igo autobusera magazina
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

MARTITZENA
19:10 Iluntzean: Ainhoa Aierbe

EGUENA
19:10 Noraezean

ASTEABIHITZETAN

Uribesalgo lantegikoak greban

Eguenean eta egubakoitzean, Uillajes Uribesalgo lantegiko langileek greba egin zuten. Aspaldi dabilta Uribesalgokoak protestan. Langileen ordezkariak salatu zuten Uribesalgoko arduradunek itxi egin gura dutela Arrasateko lantegia 2006. urterako. Ordezkarien esanetan, milioika euroko etekina lortu eta enpresaren jabeek poltsikoak ondo bete eta gero.

Uribesalgoko langileak Gasteizera joan ziren enpresak han duen beste lantegiaren aurrean bilkura egitera. Ekimen horrekin, Gasteizko langileen elkartasuna jaso gura izan zuten, eta era berean hango langileak informatu.

Datorren ikasturterako eskaintza berriak

Mondragon Unibertsitateak datorren ikasturterako eskaintza akademikoa aurkeztu du. Ohiko ikasketez gain, eskaintza berriak jarriko dituzte abian.

Unibertsitateko ikasketetan, bi dira berrikuntza aipagarrienak. Lehen hezkuntza arlokoa da; Eskoriatzako fakultatean berba egiteko edo entzuteko arazoak dituzten umeei lagunduko dieten irakasleak heziko dituzte. Bigarren berrikuntza, berriz, komunikazioaren alorretik dator; komunikabideetan nahiz enpresetan komunikazioa landuko duten adituak heziko dituzte.

Ikerlanen, zirkulazio-kontrolagailua

Ikerlanek garraibide ezberdinen elkarguneetan sortzen den zirkulaziorako kontrolagailu bat garatu du. Kontrolagailu horren bitartez, garraioa automatizatu ondoren kontrolatu egin gura dute, eta itsas portuetarako bideratu dute lan hori.

Itsas portuetan zailtasunak izaten dituzte merkantziak garraibide batetik bestera eramateko. Izan ere, portu askotan errepideak ur bidezko garraibideak eta trenbideak izaten dira, eta zaila izaten da horrenbesteko zirkulazioa ondo bideratzea.



Monterron parkea, irekita

Gaixo zeuden haritzak bota eta gero, eguaztenean ireki zuten berriro ere Monterron parkea. Monterrongo lanak bukatuta, orain Santa Barbarako zuhaitzen egoera aztertzen dabilta. Badirudi, Santa Barbarako haritz batzuk ere gaixo daudela eta bota egin beharko dituztela.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Nazioartekoa gureganatu

Martxoaren 11n Madrilen jasotakoak zeresan handia emango du oraindik. Euskal Herrian, bereziki, baina baita nazioartean ere, jakina. Iraketo inbasioak ez du atzera egin, ez horixe, eta han, Iraken, lagun mordoa hil eta hilko dituzte. Madrilgoek baino balio txikiagoa duten lagunak ei dira. Bitartean, Israelgo gobernuak Hamase-

ko agintaria hiltzea erabaki zuen. Erabaki eta egin. Ederto, ziur horrek ere arazo asko konponduko dituela. Ziur Israelen eta beste inon atentatuak egingo ez dituztela. Hori da arazoak konpontzeko modu egokia. Horrelako agintariekin, lasai bizi gaitzke.

Gura edo ez gura, Iraken, Afganistanen eta Palestinan egiten dituzten gehiegikeriek

mundu osoan dute eragina. Ezin dugu ezikusiarrena egin.

Horren harira, eta herri-tarrak guzti horretaz jabetzeko, Arrasateko Gerraren Aurkako Plataforma Palestinaren eta Iraken okupazioaren aurkako jardunaldiak antolatu ditu. Astean hainbat berbaldi egin dituzte. Horrez gain, astelehenean eta martitzenean, arma-industria eta Palestina berbagai izango dituzte. Badaukagu zer ikasi, komunikabideetatik at!

ASTEKOIRUDIA



UBANE MADERA

ARRASATEKO BEHARGINEN TESTIGANTZAK JASO DITUZTE LIBURU BATEN

Eguaztenean, Arrasate, langileek eraikitako herria liburua aurkeztu zuten Industria Erakusketan. Lan hori Industria Erakusketaren arduradun Isabel Aramendiak eta Leire Parra historialari arrasatearrak egin dute. Liburu horrek Arrasateko langileriaren iraganeko bizimodua eta gaur egunera

arte izan duen bilakaera jaso du. XX. mendean lanean ibilitako hainbat beharginen testigantza jaso dute. "Gure industriaren historia errekupeartzeko lanari ekin genionean, ohartu ginen historia horretako protagonistak eta informazio hori galdu egin behar zirela", azpimarratu zuen Aramendiak. /I.B.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - posta-kutxa 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 79 78 14
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxes: 943 79 01 82



Tfno 714345

MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenean itxita
ESKORIATZA



XABIER URZELAI

Egitamu Orokorrean egindako aldaketen artean erabaki dute Etxe Txikiak ez dituztela botako.

HIRIGINTZA/ Egitamu Orokorra

Aldaketa handiak egin dituzte Egitamu Orokorrean

UBANE MADERA

Egitamu Orokorrean aldaketak egin ditu Udalak. Hasierako asmoekin konparatuta, aldaketako batzuk dezente handiak dira. Adibidez, Etxe Txikiak ez dituztela botako erabaki dute orain. Horrekin batera, Madina Zurak izeneko lantegian aparkalekuak egin gura dituzte.

Joan den astean iragarri genizuen Egitamu Orokorrean aldaketak egin dituela Udalak, eta orain jendaurrean daudela, alegazioak jasotzeko. Hala, bada, aldaketarik nabarmenenak aipatuko ditugu oraingo honetan.

ETXE TXIKIAK BERE HORRETAN

Lehen aipatutako moduan, aldaketa horien arabera, Etxe Txikiak ez dituzte botako. Are gehiago, aurrera begira, inguru guztia egokitzeko eta txukuntzeko lanak egitea aurreikusi dute. Hain zuzen ere, zortzi urte barru-edo hasiko dira lanok egiten.

ETXEBIZITZA GEHIAGO, ZABALGUNEAN

Bestalde, Etxe Txikiengandik gertu, Gelmaren aurrealdean, hain justu, aurreikusitakoa baino etxebizitza gehiago eraikiko dituztela erabaki dute. Hala, 389 eraiki behar zituzten lekuan, orain, 418 eraikiko dituzte. Hori bai, esan beharra dago Zabalgunean babes ofizialeko etxebizitzak eta etxebizitza libreak eraikiko dituztela. Eta erabaki berriaren arabera, jaitsi egin dutela babes ofizialeko etxebizitza kopurua 212tik

125era. Udalaren asmoen arabera, datozen lau urteon barruan hasiko dira lanok egiten.

BABES OFIZIALEKOAK, ZERRAJERAN

Etxebizitzen kontuekin segituz, Zerrajera inguruan aurreikusitakoak baino babes ofizialeko etxebizitza gehiago eraikiko dituzte. Hain zuzen ere, Arrasate Musikalen inguruan etxebizitzak eraiki behar zituzten, gero tasatutako prezioan saltzeko. Orain, aldiz, etxebizitza horiek guztiak babes ofizialekoak izango dira; guztira, 168.

APARKALEKUA ETA IGOGAILUA

Bestalde, Egitamuan egindako aldaketekin eta herrian dagoen aparkaleku beharrari erantzunez,

Zabalgunean etxebizitza gehiago eraikiko dituzte, baina babes ofizialeko gutxiago

Gurearen ondoko etxebizitzak ez dira antolamenduz kanpo egongo; hala, jabeek lanak egin ditzakete

Kanpazarrera bidean dagoen Madina Zurak izeneko lantegia birmoldatu eta han aparkalekuak egitea aurreikusi du Udalak. Eta hori eginaz bat, Bizkaia etorbidea eta Gorostiza esparruak lotuko dituen igogailu bat jarri gura dute.

ZENBAIT AUZO

Bukatzeko, herriko zenbait auzotarako egitasmoetan ere izan da aldaketarik. Adibidez, Gesalibarrren, besteak beste, nekazari hirigunea antolatu gura dute, eta aparkalekuak eta etxe berriak egin (16 etxe, guztira).

Akisoalden, berriz, Garagartza eta Gesalibar oinarri moduan hartuta, herrigune berria eratu nahi dute. Hala, mintegia eta kirol hornikuntza ordezkatuko dituen etxebizitza-gune berria sortuko dute: 48 etxebizitza libre eraikiko dituzte, eta beste horrenbeste babes ofizialekoak.

Montzon inguruan, Meatzerrekako baserri bidearen eta GI-3551 errepideen arteko zirkulazio lotura antolatzeko biribilunea eraikiko dute. Eta Montzon baserria eta Meatzerrekako elkartea bere horretan utziko dituzte.

Meatzerreka aipatuz, auzoaren iparraldean egin beharreko dentsitate txikiko etxebizitza kopurua 28ra igo dute. Auzoaren hegoaldea, berriz, jarduera ekonomikoetarako izatea nahi dute.

Eta Zaldibar kaleko 5. eta 7. zenbakietako etxebizitzak ez botatzea erabaki dute orain. Ondorioz, aurreikusitakoa baino etxebizitza gutxiago egingo dituzte han: 65etik, 18ra jaitsi dute kopurua.

Garizuma dela-eta, kantu gregorianoa San Andresen

U.M.

Garizumako ekitaldien barruan, bihar, zapatua, kantu gregorianoa izango da San Andresko elizan. Lehenengo, meza izango da, kantu gregorianoarekin; eta gero, kontzertua emango dute.

Garizuma garaiko bosgarren domekaren bezpera dela-eta, ekitaldi berezia antolatuko dute San Andresko elizan. Easo abesbatza ekarriko dute, eta haien eskuatik kantu gregorianoak entzun ahal izango dira. Lehen esan bezala, bihar, zapatua, izango da hori, 19:00etan hasita. Hain zuzen ere,

lehenengo, mezaren sarrera moduan, *Exurge Domine* kantatuko dute. Eta horren ostean, Angelis Meza esango dute. Hala, horren barruan, *Quirie*, *Santus* eta *Agnus* zatiak abestuko dituzte Easo abesbatzakoek. Betiere, kantu gregorianoak izango dira.

GERO, KONTZERTUA

Eta, mezaren ostean, San Andres elizan bertan, ordu erdiko kontzertu berezia eskainiko du Easo abesbatzak. Esandakoaren arabera, guztira, 12 kantu abestuko dituzte. Sei abesti Garizuma garaiarekin lotutakoak izango dira; eta beste seiak, Pazko astearekin lotutakoak.

Palestinaren eta Iraken okupazioaren kontra ekimenak

U.M.

Egunotan, Palestinako eta Irakeko egoera berbagai da herrian. Arrasateko Gerraren Aurkako Plataformak antolatuta, aipatutako bi herrialdeek jasaten duten okupazioa salatuko dute zenbait ekimenen bitartez.

Iraken okupazioaren lehen urteurrena bete dela aprobetxatuta, hango egoera salatuzko ekimenak antolatu dituzte Arrasaten. Hala, oraingo astean pare bat hitzaldi izan dira Monterronen. Iraken eta Palestinaren okupazioa aztertu dituzte, eta mundu arabiarraren

gaineko ikuspegia landu dute. Eta, bost egunez, Sahararen eta Palestinaren gaineko argazki erakusketa izan da, Monterronen.

Datorren asteari begira, berriz, astelehenean arma industriaren gainean berba egingo dute, 19:00etan, Monterronen; eta martitzenean, Palestinaren gaineko diapositiba emanaldia egingo dute, 19:00etan, Monterronen.

OKUPAZIOAREN ERAGIN KALTEGARRIA

Horrekin guztiarekin, okupazioaren eragin kaltegarriak salatu dituzte batetik; eta bestetik, Elkarrekin Hurbilak jasaten duen egoeragorria salatu dute.



Martitzenean, Irakeko eta Palestinako okupazioa izan zen berbagai hitzaldian.

LABUR

Monterron parkea zabaldu dute; aurrerago, Santa Barbarako bost zuhaitz botako dituzte

Gaixorik zeuden zuhaitzak bota, egin beharreko garbiketak egin eta segurtasuna bermatzen dela ikusi eta gero, Udaletik jaitsi narazi digutenez, oraingo astean (eguztenez), berriz zabalduko dute Monterron parkea. Bestalde, esan digutenez, aurrerago begira, Santa Barbara parkean beste bost zuhaitz botako dituzte, haiek ere gaixorik daude-eta.



Besteak beste, zoladura berria ipini gura dute, espazioen diseinu berriak egin eta lur azpiko aparkaleku bat egin.

HIRIGINTZA/ Izartu programan parte hartzeko eskaera egin du Udalak

Udalak laguntza eskatu du Makatzena-eta berritzeko

UBANE MADERA

Eusko Jaurlaritzaren Izartu programa aprobetxatu, eta Santa Marina-Makatzena inguruan zenbait lan handi egiteko dirulaguntza eskatuko du Udalak. Hala onartu zuen astelehenean udalbatzarrak aho batez. Eskaeraren erantzuna ekainean-edo jasoko dute.

Herriak biziberritzen laguntzeko programa da Izartu. Jaurlaritzak diru kopuru bat bideratzen du programa horretarako, eta beharra duten herriek eskaera egiten dute. Hori bai, zenbait baldintza bete behar dira dirulaguntzok eskatzeko: 91tik 2001era herritar kopurua gutxitzea, hezkuntza maila baxua izatea, langabezia-tasa altua, etxebizitzak eta zerbitzuak EAE-koekin konparatuz maila baxua-

gokoak izatea eta Barne Produktu Gordina EAEkoa baino baxuagoa izatea. Arrasatek ez ditu baldintza horiek betetzen. Bai, ordea, Arrasateko gune batzuek. Makatzena-Santa Marina barrutiak, esaterako, lehen aipatutako baldintzen artean aurreneko hirurak betetzen ditu (langabezia-tasaren kasuan, Santa Marinaran, emakumea da nagusi). Gauzak horrela, eta Garapen batzordeak hala eskatuta, udalbatzarrak erabaki zuen Izartu programan Santa Marina ingururako laguntza eskatzea.

SEI EGITASMO

Hala, Makatzena-Santa Marina barrutiarekin lotutako sei proiektu aurkeztu ditu Udalak. Aurreneko hiruren arabera, Makatzena, Santa Marina, Hondarribia, Agorre eta Santa Teresa kaleak berri gura dituzte. Besteak beste, lora-

tegi berriak, umeendako jolaslekuak, zoladura berria eta antzerako lanak egitea da asmoa. Baita eskailera mekanikoa ipintzea ere, Hondarribia eta Makatzena-ren artean. Laugarren proiektuaren arabera, Santa Teresa eta Galizia kaleen artean lur azpiko aparkalekua eraiki gura dute. Eta haren gainean, umeendako jolaslekua.

Bosgarren egitasmoari dagokionez, Santa Marinarako bi igogailu ipini gura ditu Udalak. Igogailuek bat egingo lukete Makatzena eskailerarekin. Eta azkeneko egitasmoarekin, Agorre, Santa Marina eta Santa Teresa kaleen osteko ortuak berreskuratu gura dituzte, ingurua egokitu eta ortu ekologikoak ipini.

Proiektuok aztertu eta gero, Udalak ekainean jasoko du Izarturen erantzuna. Asko jota, lau milioi euroko laguntza jasoko du.

Arrasateko zenbait presoren egoerak txarrerera egin du M-11ren ondoren

U.M.

Martxoaren 11ko atentatuaren ondorioz, zenbait euskal presok jipoiak jaso dituztela salatzen dute; beste batzuk bakartze egoeran daude edo egon dira; baita gose greban ere. Tartean, badira arrasatearrak.

Arrasateko zenbait preso politikoren senitartekoek jakinarazi digutenez, martxoaren 11ko atentatuz geroztik, dezente eskatu da euren senideen egoera. Alcalá-Mecón, emakumeen sailean, adi-

bidez, manifestazio moduko bat antolatu zuten preso sozialek, kartzelako hezitzaile eta begirale bana buru zirela, eta han dauden 16 euskal preso politikoen kontra jo zuten. Tartean, Saioa Alzua eta Amaia Arrieta arrasatearrak daude. Kontatu digutenez, lepoan kolpeak eta iletik tirakadak jaso zituzten. Gauzak horrela, erizaintzara eraman zituzten funtzionarioek, eta gero, bakartze egoerara, martitzenera arte. Horren ostean, salaketa ipini dute Alcalá-Mecón euskal presoek, argibideak eskatu dizkiote zuzendaritzari eta gainerako

presoei gauzak argitzen ahalegindu dira. Edozelan ere, senitartekoek salatu dute egoera bere onera etorri barik dagoela, garbi gelditu dela kartzelako arduradunen inplikazioa eta presoen kontrako mendeku moduan aurreneko gradua ezarri dietela batzuei.

Bestalde, Txus Goikoetxea preso mondragoetarra gose-greban da joan den astelehenaz geroztik (hilak 15). Kontua da berarekin Albaceten dagoen beste preso bati eraso egin ziotela labanarekin, eta funtzionarioek ez zutela hori eragozteko ezer egin.

Kaleko eskulturen egoeraren gaineko txostena egingo dute

U.M.

Kalean dauden eskulturen egoera aztertzeko txostena egingo dute, Udalak hala eskatuta. Asmoa da eskulturak berritzea. Batzuk margotu egingo dituzte, baina beste batzuk apurtuta daude.

Eskultura dezente dago Arrasateko kaleetan ipinita. 30etik gora eskultura, Kultura batzordetik jakinarazi digutenez. Horietatik gehienak 1985-86 eta 87an antolatutako sinposioetan egindako eskulturak dira, nazioarteko artistek egindakoak, hain justu.

EGOERA ESKASEAN

Kontua da denboraren eraginez, eskultura horiek zikindu egin direla eta batzuk apurtu ere bai. Hala, Udalak erabaki du haien egoeraren gaineko txosten teknikoa egitea. Horren bitartez,

eskulturen egoera zehaztu eta gero, eskulturok berritzeko tratamenduak ezarriko dituzte.

ARAZO LARRIENA, ZIKINKERIA

Hain zuzen ere, Carmen Martín zaharberritzaile arrasatearrak egingo du txosten hori, beste lagun batek lagunduta. Esan digunez, hilabete inguru beharko du txostena egiteko. Eta xehetasunak zehaztu eta gero, lanean berehala hasiko dela jakinarazi digu.

Carmen Martinek adierazi digun moduan, txosten teknikoa egingo dute, eskulturak berritzeko tratamendua proposatuko diote Udalari eta bukatzeko, eskultura horien mantenurako gomendioak egingo dizkiote. Gaineratu digunez, bere ustez, eskulturen kalterik nagusia zikinkeria eragindakoa izango da. Edozelan ere, esan digu oraindik ez dela azterketarekin hasi, beraz, oraindik ikusteko dagoela.



80ko hamarkada amaieran egin zituzten kalean dauden eskultura gehienak.

LABUR

'Erlojuaren eraikina' monumentu izendatzeko espedientea zabalik dago

Antzinako Union Cerrajera enpresaren instalazioetarako sarre-rako eraikinaren gainean (*Erlojuaren eraikina*) zera jakinarazi dio Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Sailak Udalari: eraikin horri monumentu izendapena emateko espedientea hasi dutela eta orain jendaurrean dagoela, alegazioak-eta jasotzeko. Gaineratutakoaren arabera, orain, Udalak 20 eguneko epea dauka alegaziorik izanez gero, horiek aurkezteko.

Herriko Plazako eta udaletzeko argiteriarekin lotutako lanak esleitu dituzte

Oraingo astean esleitu dituzte plazako argiteria berritzeko eta argiztapena egokitzeko lanak. ERKA izeneko enpresak egingo ditu lanok; guztira, 58.000 euro pasatxo erabiliko dute horretarako. Hala, alde batetik, herriko plazako argiteria eta argiztapena egokitzeko dute. Eta bestetik, udaletxearen aurre aldean ipintzeko apain argiak diseinatuko dituzte. Hiru hilabete inguruko epea ezarri dute guztia bukatzeko.



IRLANDARA EGINDAKO TXANGOA ONDO APROBETXATU ZUEN IKER ELORTZAK

Kirok orrialdeetan Iker Elortzaren berri eman dugu. Irlandan izan da Euskarians errugbi selekzioarekin jokatzeko, baina errugbiko partidua jokatzeko gain, asteburua ondo baino hobeto aprobetxatzeko aukera izan du mondragoetarrak, argazkiari erreparatu bestela. Irlandako taldeari ondo irabazi eta gero, Euskarians-eko mutilek Sei Nazioen Torneoko Irlandaren eta Italiaren arteko partidua ikusteko aukera izan zuten; zuzen-zuzenean, gainera. Errugbian jokatu eta errugbia ikusi, eta nola ez, errugbian ohitura den hirugarren zatiaz ere gozatu zuten; hau da, tabernaz taberna ibili eta Irlandako garagardo ederra dastatzeko aukera ez zuten bertan behera utzi.



TRUKE PROGRAMAKOEN BISITA IZAN GENUEN EGUAZTENEAN GOIENAN

Truke Programan esku hartzen dabilzan lagunek GOITB, Arrasate Irratia eta ARRASATE PRESS bisitatu zituzten eguaztenean. Kooperatibaren funtzionamendua ezagutzera etorri dira gure ibarrera, baina eguaztenean, euskararen normalizazioaren alde lanean dabilzan enpresa eta erakundeak bisitatu zituzten. Hamahiru lagun izan ziren gurean; Mozambikoko lagunak, Kolonbiakoak, Txilekoak, Argentinakoak, Brasilgoak, Ekuadorrekoak, Hondurasekoak, Guatemalakoak, Filipinetakoak eta Kubakoak. Mundukidek eta Huhezik antolatu dute bosgarren Truke Programa, eta oraingo astean amaituko dute. MCCko enpresak, ikastetxeak, euskara elkarteak, nekazari arloko enpresak eta beste zenbait erakunde bisitatu dituzte.



IKASTOLAK ETA BREITAINIAKO 'DIWAN'-AK ELKAR EZAGUTZEKO BIDAIK ANTOLATZEN

Arizmendi Ikastolan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailatan frantsesa ikasten duten ikasleak Britainian egon dira. Ikasketak bretoieraz egiten dituzten ikasleak izan dituzte lagun Arizmendiko 32 ikasleek. Ikasle euskaldunak Kenperko Diwan-ean lehenengo eta Brestekoan egon ziren gero. Britainiako eskolei Diwan deitzen diete, baina Diwan-etan egoteaz gain, Britainiako kostaldea, museoak eta Oceanopolis-a ere ezagutu zituzten. Ikastolen eta Diwan-en arteko harremana orain dela lau urte hasi zen. Orduetik, bi herrietako ikasleak arduratu dira urtez urte harreman hori estutzeaz. Aurten ere ondo baino hobeto ibili dira elkarrekin. Apirilean izango dute elkar ikusteko aukera berriz ere, orduan etorriko dira-eta bretoiak gurera.



BATXILERGOKO IKASLEAK LANTEGIAK BARRU-BARRUTIK EZAGUTZEN

Batxilergoko 2. mailako Teknologiko-Formatiboko 60 ikasle Arrasateko Fagor-Ederlan mekanizatu zentroan izan dira. Bertan, lantegia eta erabiltzen dituzten makina eta tresnak ikusteaz gain, beharginek lana nola egiten duten jakiteko aukera izan zuten; azken baten, esparru teknologikoa hurbilagotik ezagutzeko aukera paregabea. Bisitaldia hasi aurretik, baina, lantegiko arduradunek azalpen txiki bat eman zien ikasleei. Gero, eguneroko lanaren gainekoak jakin zituzten. Beste urte batzuetan ere egin izan dituzte ikasleek lantegietara horrelako bisitak. Irakasle arduradunek urtea amaitu aurretik inguruko beste kooperatiba batzuk ezagutzeko asmoa azaldu dute. Ikasle horiez gain, batxilergoko beste klase batzuek ere horrelako bisitak egin dituzte.

MENDIKO BIZIKLETA

Domekan, Euskadiko Openaren bigarren lasterketa korrituko dute Arrasaten

Lasterketa goizeko hamaiketan hasiko da, Eroskiko aparkalekuan, eta 180 ziklista inguru elkartuko dira

XABIER URZELAI

Domekan bigarren aldiz jokatuko dute Arrasaten Euskadiko Mendiko Bizikletako Opena. Joan den urtean lasterketa ikusgarria korritu zuten Mojategiko aldapetan. Domekako lasterketarako, orain dela gutxi aurkeztu berri duten taldea ibili da antolatzaille lanetan: Ederra Taldea, hain zuzen ere.

Domekan 180 lasterkari inguru izango dira, Musakolan, Euskadiko Openaren bigarren lasterketan esku hartzeko prest. Lasterketa goizeko hamaiketan hasiko da, Eroskiko aparkalekuan. Guztira zazpi maila izango dira: elite maila, 23 urte azpikoak, master 30, master 40, juniorrak, kade-teak eta neskek. Ibilbideak zortzi kilometroko luzera izango du, eta 265 metroko desnibela. Joan den urtean, bi tanda egin zituzten, baina aurten denak batera irtengo dira, lasterketa larregi ez luzatzeko; horrez gain, aurten proba askoz ere ikusgarriagoa izango da.

Elite, 23 urte azpiko eta master 30eko lasterkariak lau itzuli eman beharko dizkiote ibilbideari; master 40 eta junior mailakoek, hiru itzuli; eta kadeteek eta neskek, bi itzuli.

HAMABI LASTERKETA

Euskadiko Mendiko Bizikletako Opena hamabi probak osatzen dute. Nafarroan bost lasterketa korrituko dituzte, Gipuzkoan hiru lasterketa, Bizkaian beste hiru lasterketa eta Araban bi lasterketa. Martxoaren 14an hasi zuten denboraldia, Izkuen (Nafarroa), eta Arrasatekoa bigarren proba izango da.

Arrasateko lasterketa antolatzeko Ederra Taberna taldea, Dorletako Ama Txirrindulari Taldea eta Euskadiko Txirrindularitza Federaziokoak ibili dira lanean. Horrez gainera, baina, Ikaia bizikleta dendakoen, Arrasate Motozale Elkartekoen eta Soinuakoen laguntza ere izan dute.

Domekako lasterketarako Arrasatek ordezkariak propioa izango du, Ederra Taberna taldeko ziklistek lasterketan parte hartuko dute-eta. Ederra Taberna orain dela gutxi sortu duten mendiko bizikletako taldea da, eta eurek egin dute domekako lasterketa antolatzeko lan handiena. Ederra Taberna taldea Felix Zugasti (Arrasate), Zigor Urain (Arrasate), Iñigo Roldan (Aretxabaleta) eta Igor Lazkanok (Eskoriatza) osatzen dute. Izenak argitzen duen moduan, taldeak Ederra tabernaren babes



A.MURILLO

Ederra Taldeko lau ziklista izango dira domekako lasterketan elite mailan esku hartzen.

izan du, eta proba antolatzen ere Ederrako lagunak buru-belarri ibili dira lanean. Horiek, baina, ez dira Mondragoeko ordezkari bakarrak izango, Ikaia bizikleta dendako Jose Angel Lopezek ere esku hartuko du-eta lasterketan.

IZKUEN, ARRASATEARRAK ONDO

Euskadiko Openaren lehenengo proba martxoaren 14an jokatu zuten Izkuen, eta mondragoetarrak lan ona egin zuten. Beterano mailan, azpimarratzekoa da Jose Angel Lopezek egin zuen lasterketa. Bigarren postuan helmugaratu zen Jose Angel, eta Arrasaten ere seguru aurreko postuetan izango dela. Joan den urteko beterano mailako Euskadiko txapeldunak aurten ere helburu bera du, eta hasi behintzat ondo hasi da.

Ederra Taberna taldeko ziklistek, berriz, elite mailan hartu zuten esku. Iñigo Roldan aretxabaletarra 12.a izan zen, eta hamar puntu eskuratu zituen. Joan den urtean, Arrasaten bosgarrena izan zen, eta marka horri eustea helburu polita izango litza-teke. Horrez gain, Zigor Urain 16.a izan zen, eta sei puntu eskuratu zituen; Felix Zugasti 17.a izan zen, eta 5 puntu lortu zituen; eta, azkenik, Igor Lazkano 31. postuan helmugaratu zen.

Domekan, ziklista horiek lasterketa berezia korrituko dute etxean, Mondragoeko publikoaren txalo artean.

GORKA SUDUPE/ANTOLATZAILEA

"Behin taldea aterata, Arrasateko lasterketa antolatu beharra zegoen"

X.U.


Domekako lasterketa antolatzeko jo eta su ibili dira lanean Ederrako lagunak. Gorkak atsegin du mendiko bizikletan ibiltzea, baina ez dago federatuta eta ez du lasterketan parte hartuko. Antolatzaille lanetan ibili da bera.

Egunotan lan handia izango duzue.

Bai, uste baino handiagoa, gainera. Gauza asko daude egiteko, eta horietako asko azken momentura arte ezin dira egin. Adibidez, zirkuitua azken momentuan prestatu behar da; egun batzuk lehenago eginez gero, batek daki domekan zer aurkituko genuen. Gainera, elurrak hainbat zuhaitz bota zituen ibilbidera, eta hori guztia garbitu egin behar izan dugu.

Nolatan antolatzaille lanetan?

Iñigo Roldan laguna dut, eta bizikletan askotan ibili gara elkarrekin. Bera horrelako lasterketan ibiltzen da, eta talde bat sortzeko asmotan zebilen. Nik esan



XABIER URZELAI

nion taldeak Ederra tabernaren babesak izango zuela, eta mailloak atera genituen.

Eta, lasterketaren kontua gero etorri zen.

Bai. Esan zidaten aurten lasterketa antolatzeko zailtasunak

Lasterkari guztiak batera irtengo dira, baina guztiak ez dute kilometro kopuru bera egingo

Lehenengo proba martxoaren 14an egin zuten, eta Jose Angel Lopez bigarrena izan zen

Gipuzkoan Euskadiko Openaren hiru lasterketa baino ez dituzte korrituko

zituztela, lan handia zela. Nire lankide Karlosek eta biok argi geneukan Arrasaten mendiko bizikletako talde bat sortu eta lasterketa ez antolatzeko ez zela logikoa, eta ardura hori hartu genuen.

Laguntza handia izan duzue?

Kontua da joan den urtean izandako lasterketak ez zuela publizitate handirik izan, eta dirulaguntzak lortzeko arazoak izan ditugu. Bestela, taldekoak, Karlos Murillo, Jose Angel Lopez eta ni ibili gara lanean. Horrez gain, baina, eskerrak eman gura dizkiet dirulaguntza emanez lasterketa antolatzeko posible egin dutenei; eta baita lasterketan lanean ibiliko direnei ere.

Herriak eskertzen ditu horrelako ekimenak.

Bai. Arrasaten gazte asko ibiltzen da mendiko bizikletan, errepideak ez daude-eta bizikletan ibiltzeko moduan. Zailtasun handia dago, eta horrelako lasterketa bat Arrasatera ekartzeko ondo dagoela uste dut. Kontuan hartuta Gipuzkoan hiru lasterketa baino ez direla egingo.



ARRASATE PRESS

Lehenengo itzulian Aloña Mendik eta Mondrak norgehiagoka ikusgarria jokatu zuten. Oñatiarrak nagusitu ziren (3-2).

FUTBOLA

Aloña Mendiren kontra ahaztu behar du Mondrak Ibarran gertatutakoa

UDaren kontra 6-1 galdu eta gero, Mondrak beste derbi bat jokatu du asteburuan

XABIER URZELAI

Ahal den lasterren ahaztu behar du Mondrak domekan Aretxabaletan gertatutakoa. Ahaztu aurretik, baina, Mondrak lan handia egin beharko du domekako partidua gainbegiratu eta zer gertatu zen aztertzen. Zaila da golak egiteko kontrarioari erraztasun handiagoak ematea.

Bazirudien joan den egubakoitzean amaituko zirela Mondraren sasoi makalak. Izan ere, Trintxerperi 2-0 irabazi eta gero, bola da txarra atzean utzi eta berriz ere bide onari ekiteko garaiz ziren mondragoetarrek, baina gutxi irau zuen poztasun horrek. Trintxerperen kontra Mondrak gol aukera mordoa izan zituen, baina aurrealdean ez ziren fin ibili. Azkenean, gura baino gehiago sufrituta irabazi zuen Mondrak, Jokinek egindako bi goli esker. Larri ibilita ere, irabaztea zen garrantzitsuena, eta helburua bete zuen.

Egubakoitzean aurrealdean hankamotz ibili baziren, domekan, Aretxabaletan, atzealdeak egin zuen kale. Huts larrienak atzelariak egin zituzten, baina ez da euren ardura guztia; Mondrak ez zuen eta erdialdean inongo presentziarik izan.

UDA, KONTRARIO GOGORRA

Jokatu aurretik ere jakina zen UDaren kontrako derbia irabaztea zaila izango zela. Aretxabaletarrak sasoi ezin hobean dau-

de, eta goialdean dira sailkapean. Lehenengo itzulian gorriak ikusi eta gero, UDA atzetik aurrera etorri den taldea da, eta domekan erakutsi zuten oso argi daukatela partidu bat irabazteko zer egin behar duten. Arrasatearrak bazekiten norgehiagoka gogorra izango zela; baina ez zuten horren gogorra espero.

AHAZTEKO MODUKO 45 MINUTU

UDak gutxitan izan du gola egiteko horrenbeste erraztasun. Aretxabaletarrek egiten zuten erdiraketa bakoitzean Mondrak defentsa lanetan zituen arazoak agerian geratzen ziren. Baloia urundu ezinka; jokalarien arteko ez-ulertzeak; buruz buruko markaketetan kale; kontrarioa jokoz kanpo utzi gura eta asmatu ez... Eta, UDak aukera horiek ondo baino hobeto aprobetxatu

zituen. Mondragoeko taldeak bost gol jaso zituen lehenengo zatian; eta, arrasatearrendako bigarren zatia soberan zegoen.

LAN ZAILA BAINA EGIN BEHARREKOA

Mondrak lan gaitza izan du egiteko astean barrena: domekan gertatutakoari aurre egin eta Aloña Mendiren kontrako derbia prestatu. Baina derrigor egin beharreko lana da hori. Oñatiarrak etxetik kanpo ez dira Azkoagainen bezain sendoak, baina azkenaldian ondo dabilta. Asteburu biribila izan zuten; izan ere, egubakoitzean UDari 2-0 irabazi zioten eta domekan Amakak Bat taldeari, 4-2. Mondrak zapatuan zein aurpegi erakutsiko duen asmatzea zaila da, baina jokalaria minduta daude, eta ez dago hori baino motibazio hoberik.

Aurrera begiratu behar

Domekan inork ez luke gurako Mondrako jokalarien azalean egon. Gogorra da derbi bat galtzea, eta gogoragoa Ibarrako markagailuak erakusten zuenari erreparatzea. Gogorra da kontrarioa baino gutxiago ez zarelak jakinda galtzea, eta gaizki zer egiten den asmatu ezinka ibiltzea. Hori guztia gogorra bada ere, Mondrari aurrera begiratzea baino ez zaio geratzen, atzera begiratzeko azkeneko postuak ondo-ondoan ikus daitezkeelako. Aloña Mendiren kontra arrasatearrek gauza asko aldatu beharko dituzte. Askotan, baina, aldaketa txikiak handiak baino eraginkorragoak izaten dira. Jokalarien artean berba gehiago egitea gauza txikia da, eragin handia izan dezakeena.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Betrayer - Abokajarro	9-4
Speed Boys - Dream Team	4-3
Etixerat - Aloña Taberna	9-4
Iriztu Taberna - AC Surcos	1-9
Dribling - Tomahawk	4-2
AT Celaya - Rayo Aldeano	8-6
You Know! - Goma-2	11-0
Lasagabaster - Saukelu Scream	----

SAILKAPENA

A MULTZOA		P	J
1. Betrayer	4	2	
2. Etixerat	4	2	
3. AC Surcos	4	2	
4. Iriztu Taberna	2	2	
5. Speed Boys	2	2	
6. Abokajarro	0	2	
7. Aloña Taberna	0	2	
8. Dream Team	0	2	

PARTIDUAK

MARTXOAK 27, ZAPATUA. EPAILEAK

- 10:50: Lasagabaster - Saukelu S. . . Antola.
- 12:00: Goma-2 - Tomahawk Antola.
- 13:00: Abokajarro - Aloña Taberna. Antola.
- 14:50: Betrayer - Dream Team . . . Antola.
- 16:00: Speed Boys - AC Surcos. . . . Antola.
- 17:00: Dribling - Rayo Aldeano. . . . Antola.

MARTXOAK 28, DOMEKA. EPAILEAK

- 11:50: Saukelu Scre. - AT Celaya. . . Antola.
- 13:00: Etixerat - Iriztu Taberna Antola.
- 14:00: Lasagabaster - You Know! . . . Antola.

B MULTZOA

B MULTZOA		P	J
1. You Know!	2	2	
2. Lasagabaster	2	1	
3. AT Celaya	2	1	
4. Saukelu Scream	2	1	
5. Dribling	2	1	
6. Tomahawk	2	2	
7. Rayo Aldeano	0	2	
8. Goma-2	0	2	

ATSEDENALDIAREN OSTEAN, LANERA

ATZERATUTAKO PARTIDUAK ERE ASTEBURUAN JOKATUKO DITUZTE

Oraingo asteburuan jokatuko dute Lasagabaster-eta Saukelu Scream taldeek atzeratutako partidua. Gainera, euren arteko norgehiagokarekin hasiko da oraingo asteburu-ruko jardunaldia, zapatu goizean jokatuko dute-eta. Atsedetik hartu barik, baina, domekan beste partidu bat jokatu beharko dute: Saukeluk AT Celaya taldearen kontra eta Lasagabasterrek You Know! taldearen kontra. Bi talde horiendako garrantzi handiko asteburua izango da, lau puntu izango dituzte-eta jokoan.

Horrez gain, gainontzeko taldeek joan den astean izandako atsedena aprobetxatuta jokatu dute oraingo astean. Egia esan, ez da jarraikortasunik izaten ari bigarren fasea. Batetik, elurra dela; bestetik, joan den asteko zubia dela, eta laster Aste Santuko oporraldia izango denez, taldeek hamabostean behin dabilta partiduak jokatzeko. Azkenik, gogoratu Dribling taldeko jokalariek bateko oraingo asteburuan partidu bateko zigorra bete beharko duela.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

- Mondra - Aloña Mendi**
Preferentea. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.
- Mondra - St. Tomas Lizeoa**
Ohor. Gazteak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.
- Arrasate - Euskalduna**
Big. Gazteak. Domekan. 12:00. Atxabalpen.
- Lagun Onak - Arrasate**
Ohor. Kadeteak. Domekan. 15:30. Azpeltian.
- Arrasate B - Urnieta**
Big. Kadeteak. Zapatuan. 09:45. Atxabalpen.
- Arrasate - Aurrera Ondarroat**
Infantilak. Domekan. 09:45. Atxabalpen.
- Antiguoko - Arrasate**
Alebinak. Domekan. 11:00. Errenterian.
- Gasteiz Cup - Mondra**
Neskak. Domekan. 19:15. Gast. (San Martinen).

ESKUBALOIA

Urola Agip - AGR Arrasate
Igoera fasea. Zapatuan. 18:15. Ispillan.

SASKIBALOIA

Ointxe Arrasate - Paules Carrefour
Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.

Arrasate - Easo B

Kadeteak. Zapatuan. 12:00. Musakolan.

ERRUGBIA

Getxo - Arrasate
Kadeteak. Zapatuan. 11:00. Getxon.

EMAITZAK

FUTBOLA

Ohor. Gazt. Anaitasuna - Mondra	2-0
Big. Gazteak. Baskonia - Arrasate	6-0
Big. Kadeteak. Antoniano - Arrasate	10-0
Neskak (Kopa). Mondra - Urki	6-1
Ohor. Infantilak. San Ignacio - Arrasate	2-1

DUATLOIA

Zuhaitz Ezpeletak domekan egingo du, Durangon, denboraldiko azken duatloia

Bedoñako lasterkaria duatloiak alde batera utzi eta mendi lasterketak prestatu guran dabil

XABIER URZELAI

Zuhaitz Ezpeleta Durangoko duatloian izango da oraingo asteburuan. Arrasatearrak ez zuen uste aurten lau duatloi egingo zituenik, baina hasierako probetan izandako emaitzak ikusita aurrera egitea erabaki du. Domekako duatloia egin eta gero, mendi lasterketak prestatzen hasiko da.

Duatloi denboraldiko lehenengo proban, Basaurin, Zuhaitz Ezpeleta hirugarrena izan zen. Bigarren proban, Barakaldoko duatloian, arrasatearra podiumaren gorenera igo zen; lasterketa txukuna eginda lehenengo postuan helmugaratu zen.

Lasterketa horietan egindako lana ikusita, Bedoñako lasterkaria animatu egin zen: "Ez nuen uste horrelako emaitzak lortuko nituenik, eta azkenean duatloi gehiago egitera animatu nintzen. Esprint modalitatean puntuatzeko gutxienez hiru duatloi egin behar dira, eta lehe-

nengo bi lasterketetan emaitza ona eskuratu nuen, hirugarren bat egitea erabaki nuen; horregatik joango naiz oraingo asteburuan Durangoko duatloira, modalitate horretan puntuatzeko beste lasterketa bat egin behar dut-eta".

OÑATIKO DUATLOIAN BIGARREN

Gernikako proba bertan behera geratu eta gero, joan den astean Oñatiko proban hartu zuen esku Zuhaitz Ezpeletak: "Oñatiko probak ez du esprint modalitatean puntuatzeko balio, duatloi horrek modalitate olinpiarra duelako. Hala ere, gertu dagoenez esku hartzea erabaki nuen, eta gustura geratu nintzen egindako lasterketarekin".

Seguruenik oraingo asteburuan egingo du atleta mondragoetarrak denboraldiko azken duatloia: "Domekan jokatu den Durangoko proba egin eta gero, mendiko lasterketak prestatzen jarraituko dut, aurtengo helburua Aizkorriko maratoina sasoi onean iristea da-eta".



Zuhaitz Ezpeleta Jon Arozenari jarraikita, Oñatiko duatloian. Arozenak Deskargan alde hartuta irabazi zuen lasterketa.

XABIER URZELAI

Iker Elortza Euskarians-ekin izan da Irlandan, eta 19-20 nagusitu ziren

X.U.

Arrasate Errugbi Taldeko Iker Elortza Irlandan izan zen joan den asteburuan, Euskarians selekzioarekin lagun arteko partidua jokatu zuen. Mondragoetarrak hasiera-hasieratik jokatu zuen, eta bigarren zatian aldatu zuten. Bada, Euskarians-ek 19-20 irabazi zion Irlandari.

"Orain arte egindako lorpenik handiena izan da Irlandari irabaztea". Hori esan zuten partidua amaitu eta berehala Euskarians selekzioko arduradunek. Talde euskaldunak ondo jokatu irabazi zion Irlandako selekzioari, eta Euskarians-eko selekzioan dagoen maila ona erakusten du horrek. Iker Elortza mondragoetarrak hasieratik jokatu zuen partidua: "Ez nuen horrelakorik espero, ez nuen uste hasieratik jokatu nuenik, baina hala izan zen, eta gustura geratu nintzen egindako partiduekin".

Mondragoetarraren esanetan, sekulako esperientzia izan da: "Ez dut uste horrelakorik errepikatuko denik, horrelako partidua 20 urtetik beherako selekzioetan antolatzen dituztelako. Izan ere, taldearendako oso gares-



ARRASATE PRESS

Iker Elortza, eskuinaldean, Suttongo errugbi zelaian taldekide batzuekin.

tia da horrelako partidu bat antolatzea. Dena dela, sekulako esperientzia izan da. Jokalari asko iparraldekoak ziren, eta ez zekiten espainolez berba egiten. Hala ere, oso ondo konpondu gara. Taldekide batzuk profesional moduan zebiltzan, kontratuekin, eta Frantziako selekzioan jokatu zuten ere bazeuden. Berehala igarri nuen taldean maila ona zego-

ela, teknika handiko jokalaria zeuden han".

Arrasateko jokalaria Euskadiko selekzioarekin entrenatu da astean zehar. Izandako esperientzia ahaztu barik, datozen asteotan Arrasateko taldearekin jokatu du, igoera fasean bosgarren postua lortzeko helburuarekin. Ea aurrerantzean ere zortea daukan Ikerrek.

FOTOKIROLA



Ointxe eta Paules aurrez aurre zapatuan

Joan den astean amaitu zen, Errioxan, Ointxe Arrasateren bolada ona, Kalagorrik 76-46 irabazi zion-eta Arrasateko taldeari. Hamar partidu segidan irabazi eta gero, 30 puntuko aldearekin galtzea ez da normala. Arrasatek ia ordezko jokalaria barik jokatu zuen partidua; horri esker errioxarrek erraz irabazi zuten. Oraingo astean Paules Carrefour taldearen bisita izango dute Iturripen. Ea ordurako Gorka Zurutuzak kontrarioari aurre egiteko nahikoa jokalaria dituen.

AGRk Urolaren kontra jokatu du igoera fasearen bigarren partidua

XABIER URZELAI

Gipuzkoarren arteko eskubaloiko derbia jokatu dute asteburuan Urolak eta AGR Arrasatek. Bi taldeek ondo ezagutzen dute elkar, eta biek hala biek goiko mailara igotzeko helburua dute. Edozelan ere, oraingo partiduan Urolak du abantaila, etxean jokatu du-eta.

Gipuzkoako lehen territorial mailako bi talde onenak izango dira nor baino nor gehiago oraingo asteburuan. Urola eta AGR Arrasate sailkatu ziren igoera fasea jokatzeko, eta oraingo asteburuan indarrak neurtuko dituzte. Urola sailkatu zen lehenengo postuan, eta Arrasateko taldea bigarrena izan zen; indarrak, baina, pare-parean daude.

HASIERA EZBERDINA

Bi talde horiek igoera faseko bigarren jardunaldia jokatu dute, eta igoera fasean hasiera ezberdina izan dute. AGR Arrasatek gol bateko aldearekin irabazi zion joan den astean Bizkaia Deustua taldeari. Bizkaitarrak euren ligan hirugarrenak izan ziren, eta maila handirik erakutsi ez bazuten ere, mondragoetarrek larri ibili ziren irabazteko. Etxekoek ez



ARRASATE PRESS

Arrasateko taldeak igoera faseko bigarren partidua irabazi gura du Zumarragan.

zuten dakiten moduen jokatu, partiduak zeukan garrantziagatik presionatuta-edo. Hala ere, igoera fasea irabazten hastea zen garrantzitsua, eta mondragoetarrek bete zuten helburu hori.

Urolak, berriz, galdu egin zuen igoera faseko lehenengo partidua. Erromo talde bizkaitarraren kantuan jokatu zuten, eta gipuzkoarrek sei goleko aldeagatik galdu zuten. Arrasateko taldeko jokalariek partidu hori ikusten izan

ziren, bi taldeek nola jokatzen zuten ikusteko. Jonan Ezkibel AGRko taldekidearen esanetan, Urolak gaizki jokatu zuen: "Erromo Bizkaiko ligako bigarren sailkatua da, eta Urolaren aurrean talde hobea izan zen. Urolak, baina, ez zuen batere ondo jokatu".

Kontrarioen partiduak ikustera joateak argi esaten du arrasatearrendako zein garrantzitsua den igoera fasea: "Urte osoa darabagu mailaz igotzeko lanean".

Debarro Txapelketan seniorrek bakarrik irabazi zuten

X.U.


Martitzenean hasi zuten Arrasateko pilotariek Debarro Txapelketa. Kadeteek eta seniorrek etxean jokatu zuten, eta gazte mailakoek, berriz, Bergaran. Agirrek eta Lazkanok bakarrik irabazi zuten.

Kadete mailako pilotariek Eskoriatzaren kontra jokatu zuten. Zua-zubiskar eta Ortiz de Mendibil bikotearendako maila berria da, eta hori igarri egin zen. Horrelako mailetan gorputza eta indarra erabakigarriak izaten dira, eta

eskoriatzarrak gehiago izan ziren (10-22). Hala ere, denborarekin hartuko diote neurria maila horri. Senior mailan, Agirrek eta Lazkanok osatu zuten bikotea, eta partidu horretan eskoriatzarrak ez ziren kontrario izan (22-10). Eskoriatzako atzelaria eskuetatik justu samar ibili zen, eta arrasatearrek aise irabazi zuten.

GAZTE MAILAKOAK BERGARAN

Arrasateko Garitaonaindia eta Gonzalo bikoteak Bergarako pilotarien kontra jokatu zuten martitzenean baita ere, eta bergararrak izan ziren hobekak (22-9).



XABIER URZELAI

Zua-zubiskarrek eta Ortiz de Mendibilek Eskoriatzako pilotarien kontra jokatu zuten.

MULTIOPTICAS

al-aire
armazoia

88 €

eta
eguzkitako
betaurrekoak
opari

LEHENA ZERBITZU OPTIKOETAN

Ibargarai 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Esmalteria Plaza
Tel.: 943 51 78 11
ERRENERIA

Mendibil M. G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

San Frantzisko 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

ANTZERKIA/ XIV. eskola-antzerki jardunaldiak

Ehunka ikaslek antzerkia gertu-gertutik ezagutzeko aukera izango dute Amaian

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Udaleko Hezkuntza eta Kultura sailek XIV. eskola-antzerki jardunaldiak antolatu dituzte. Ikasleendako ikuskizun profesionalak, ikasleek eurek egindako antzezlana eta Amaia antzokia barrutik ezagutzeko bisitak antolatu dituzte.

Azkeneko urteotan bezalaxe, Udaleko Hezkuntza Sailak, Kultura Sailaren laguntzarekin, XIV. eskola-antzerki jardunaldiak antolatu ditu. Jardunaldi horiek Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta daude, eta hiru fase nagusitan banatzen dira: ikasle horientzat antzerki talde profesionalen emanaldiak antolatzea; Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei Amaia Udal Antzokiko instalazioak barrutik ezagutzea; eta herriko ikastetxeetako DBHko 1. zikloko ikasleek prestatzen dituzten antzezlana Amaia Udal Antzokian egitea.

ANTZERKIA ERAKUTSI ETA ZALETU

Jardunaldi horien helburuak honako hauek dira: ikasleen artean antzerkirako zaletasuna hezkuntza adierazpen gisa lantzea; ikasleak antzokira eramatea antzerkia ikusten ohitzeko; antzerkiaren alderdi hezigarriak eta ludikoak ezagutaraztea; antzokiaren agertokiaren atzealdea (tresnak, baliabideak...) ikasleei erakustea; eta ikasleek ikasturtean prestatutako lanak benetako antzokian antzezteko hango baliabideez baliaturik.

Martxoaren 24an eta 25ean, DBHko 1. zikloko ikasleek bost

antzezlana egin zituzten: *Etxe hau bai dela guai; Itsuak; Musu baten bila; Diruak sendatu du; eta Egon zaitez lo eta jango dugu mehe.* Bost antzezlana horiek Arrasateko 5. eta 6. mailako ikasleen aurrean egin zituzten.

Herriko ikastetxe guztietako ikasleek esku hartuko dute, antzerkia egiten, antzezlana ikusten edo Amaia Udal Antzokiaren baliabideak ezagutzen. Ia 1.600 ikaslek antzezlana ikusiko dituzte eta 120k antzerkia egingo dute. Jardunaldiek 10.000 euroko aurrekontua dute.

TALDE PROFESIONALEN IKUSKIZUNAK

Martxoaren 31n, Markeliñe taldeak *Igandetan piratek jai* antzezlana egingo du Amaia Udal Antzokian; apirilaren 1ean, Hantxo Produkzioak taldeak *Hitzak patriketan* antzezlana egingo du; eta maiatzaren 20an, Paraiso taldeak *Klaus handia* antzeztuko du. Kultura Saileko teknikari Jon Garairen esanetan, uimeandako antzezlana egiten dituzten talde onenetarikoak ekarriko dituzte Arrasatera. Esan beharra dago ikuskizun horiek ikusteko ikastetxeen bitartez bakarrik joan ahal izango dela.

ANTZOKI BATEN BALIABIDEAK

Udaleko Hezkuntza eta Kultura sailek antzerkiarekin lotutako txosten didaktikoa egin dute. Txosten horretan, Amaia Udal Antzokiak dituen baliabideak ageri dira, eta antzerkiaren gaineko nomenklatura azaltzen dute. Ikasgelan txosten hori aztertu ondoren, ikasleek bisitaldi gidatuak egingo dituzte Amaia Udal Antzokira, eta hango langileek "antzokietan ikusten ez den guztia" azalduko diete.



Argazkian, Hezkuntza Saileko teknikari Juanito Barberan, Kultura zinegotzi Ines Aldai eta Kultura teknikari Jon Garai.

Ia 1.600 ikaslek antzezlana ikusiko dituzte eta 120k antzezlana egingo dituzte

Hainbat ikaslek bisitaldi gidatuak egingo dituzte Amaia Udal Antzokian

Astean DBHko 1. zikloko 120 ikaslek antzezlana egin dituzte Amaia Udal Antzokian

Arrasateko Musika Eskolako ikasleen hainbat kontzertu

I.B.

Arrasateko Musika Eskolako ikasleek hainbat kontzertu egingo dituzte Arrasaten eta Elgoibarren, datozen egunetan. Big Band eta Combo taldeek eta gitarra elektriko jotzaileek esku hartuko dute.

Arrasateko Musika Eskolak hainbat kontzertu antolatu ditu datozen egunetarako, Arrasaten eta Elgoibarren. Gaur, egubakoitza, Big Band taldeak esku hartuko du Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritzako diploma banaketan, eta kontzertu laburra egingo du. Amaia Udal Antzokian izango da, 17:00etan, eta Zigor

Martinezek zuzenduko du kontzertu hori.

Bestalde, bihar, zapatua, Arrasateko Musika Eskolako Combo taldeak Elgoibar Herria lehiaketan esku hartuko du. Txapelketa Elgoibarren egingo dute, jakina. Combo taldeak musika modernoa egiten du, eta zuzendaria Sergio de Juan da.

GITARRA ELEKTRIKO JOTZAILEAK

Horrez gain, martitzenean, martxoaren 30ean, Arrasateko Musika Eskolan gitarra elektriko jotzen ikasten dabilzan ikasleek kontzertua egingo dute eskolan bertan. Gazteen emanaldi hori 19:15ean egingo dute, eta gura duena joan daiteke.



Irudian, Arrasateko Musika Eskolako Combo taldea entsegua egiten.

EDORTA AYASTUI

ZINEMA/ Bost film labur AEDren eta Topagunearen eskutik

Datorren egubakoitzean, euskarazko bost film labur emango dituzte Amaia antzokian

IKER BARANDIARAN

Topagunearen Kultura Sailak ekimen berezia egiten dihardu aspaldian. Euskarazko bost film labur aukeratu ditu, eta euskara elkarteekin laguntzarekin, emanaldiak egin dituzte herriz herri. Arrasaten apirilaren 2an egingo dute, Amaia Udal Antzokian, 20:30ean.

Euskara Elkartearen Federazioaren, Topagunearen, Kultura Sailak Film Laburren Zirkuitua izeneko ibilbide kulturala jarri zuen abian. Orain arte Topaguneak, Kultur Errotaren bitartez, Euskal Herrian zehar hainbat kultura ekitaldi antolatu ditu, baina lehenengo aldia da zinema ekitaldiak ere antolatzen dituela. Hala egi- tea erabaki zuten, eta iraupen laburreko zinema ekoizpenak aukeratu zituzten.

Euskarazko bost film labur aukeratu zituzten, eta 2004ko martxoaren 3an eta apirilaren 2an bitartean 22 herri eta auzoetan ematen dabilta emanaldiok. Herri eta auzo guztietan ingurune horietako euskara elkarteekin eskuetan utzi dute antolakuntza guztia. Ibarrean bi herri aukeratu zituzten: Oñati eta Arrasate. Martxoaren 25ean Laixan elkar- teak antolatu zuen emanaldia; Arrasaten, ordea, datorren egubakoitzean, apirilaren 2an, egingo du AEDk. Kasualitatez Arrasatekoa izango da antolatu duten lehenengo zirkuitu horren azkeneko emanaldia.


EUSKARAZKO EKOIZPENAK SUSTATU

Ekimen honen bitartez, Topaguneak eta euskara elkarteekin hainbat helburu bete dituzte: herri eta auzoetan euskarazko zinemarekiko dagoen eskaerari erantzun;

Topagunearen eta euskara elkarteekin eskaintza kultura aberastu, beste ekitaldi mordo bati zinema ere batuz; euskarazko ekoizpena sustatu; eta zinemagileei euren lanak erakusteko aukerak eskaini, besteak beste.

Emanaldi bakoitzean bost film labur emango dituzte: Ane Muñozen *Basurdea* komedia (14 minutu irauten du); Aitzol Aramaioren *Terminal* drama (12 minutu irauten du); Maru Soloresen *Dortoka* uhartea fikzioa (15 minutu irauten du); Koldo Almandozen *Belarra* fikzioa; eta Asier Altunaren *Topeka* komedia (hiru minutu irauten du). Guztira, bost film laburrak ez dira ordubetera heltzen.

Emanaldi bakoitzean, film laburren ostean, bost zuzendarietako batek berbaldia egingo du. Horren bitartez, ikusleek zinemaren gainean izan ditzaketen zalantzak, galderak eta iritziak azaltzeko aukera izango dute. Eta zuzendaria ikusitakoa eta ikusleek dituzten galderak azaltzen saiatuko da. Ekimen honetan Kimuak taldeak ere esku hartu du, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan dute.



Terminal film laburraren egile Aitzol Aramaiok emango ditu azalpenak Amaia Udal Antzokian.

Euskarazko punta-puntako film laburrak ikusgai

Euskarazko zinema gutxietsita dago, are gehiago film laburren ekoizpena. Uste hori ezeztatzeko, ikusi beharra dago Topaguneak eta AEDk Arrasatera ekarriko dituzten film laburrek jasotako sari sorta.

Koldo Almandozen *Belarra* lanak Mieresko (Asturias) Film Laburren Jaialdian hiru sari jaso zituen: film labur onena, zuzendari onena eta argazki onena. Beste horrenbeste jaso

zuen Gironako Zinema Jaialdian. Maru Soloresen *Dortoka uhartea* lanak ere hainbat sari jaso ditu: Munichen (Alemania), Winterthur-en (Suitza), Kroazian, Txilen eta San Frantziskon (AEB), besteak beste.

Aitzol Aramaioren *Terminal* lanak ere ospetsu egin da hainbat jaialditan: Valentzian Espainiako Estatuko Film Labur Onena izendatu zuten. Horrez gain, Bartzelonan, Berlinen eta

Kroazian ere hainbat sari jaso ditu. Asier Altunaren *Topeka* lanak ere bidaiatu du, eta errekonozimendua jaso ere bai: Zinebin bi sari jaso zituen. Horrez gain, Benicassimen, Tenerifen, Granadan eta beste hainbat lekutan jaso ditu sariak.

Bukatzeko, Ane Muñozen *Basurdea* lanak ere palmaren polita dauka: Portugalen, Madrilen, Sevillan eta Donostian saritu dute, besteak beste.

'Glub' animazioko filma eta Iñarritu mexikarraren '21 gramos' drama

I.B.

Domekan, martxoaren 28an, animazioko *Glup* filmaren aurretrinealdia egingo dute, euskaraz, Amaia Udal Antzokian. 12:00etan izango da. Film hori Aitor Arregik eta Iñigo Berasategik zuzendu dute, eta oihartzun handia izan du.

Zuzendarien esanetan, *Glup* abenturazko filma da, baina umeen heziketan eragin gura du. Horregatik, ekologiaren gaia aukeratu dute, eta birziklatzearen onurak azpimarratu dituzte. Filmak Alize izeneko umearen istorioa kontatzen du. Birzikla-

tzearen alde dagoen neskatala da. Haren gurasoek, ordea, arduragabeki jokatzeko dute.

Eta egun berean, domekan, *Sorgin bat etxean* filma emango dute, 17:00etan. Honako hau ere umei zuzenduta dago.


DRAMA ARRAKASTATSUA

Domekan, 19:00etan eta 22:00etan, eta astelehenean, 20:30ean, *21 gramos* filma emango dute. Alejandro Gonzalez Iñarrituk zuzendu du eta 125 minutu irauten du. Iñarritu oso ezagun egin zen filmatu zuen lehenengo lanarekin: *Amores perros*-ekin, hain zuzen ere. Honako hau bere bigarren fil-

ma da, tartean film laburrak eta bestelakoak egin dituen arren.

21 gramos filmean drama gogorra kontatuko digute. Hainbat lagunek elkar ezagutuko dute istripu baten ondorioz. Gidoia Iñarrituk berak eta Guillermo Arriagak idatzi zuten, eta Duncan McDougall doktorearen teoria baten oinarritu dira. Haren esanetan, gorpuak hiltzerakoan 21 gramo galtzen ditu.

Protagonista nagusiak hauek dira: Sean Penn (*Acordes y desencuerdos; Antes que anochezca...*), Naomi Watts (*Mulholland drive...*) eta Benicio del Toro (*Traffic; Snatch, cerdos y diamantes...*).



21 gramos filmeko protagonistek hainbat sari jaso dituzte.

E, TXO!

UDALEKUETARAKO BEGIRALE BILA DABIL TXATXILIPURDI

Txatxilipurdi 2004ko udalekuen prestaketa lanak egiten dabil, eta uztaileko udalekuetan begirale lana egin gura dutenei gonbidapena egin gura die. Interesa dutenek Txatxilipurdi elkartearen egoitzara (Pablo Uranga, 4) eraman beharko dituzte curriculum, argazki bat, NAREN kopia eta begirale edo zuzendari titulua. Izena emateko azkenengo eguna da apirilaren 23a. Derrigorrezkoa izango da 18 urte edo gehiago izatea, euskaraz jakitea eta, horrez gain, Txatxilipurdik antolatzen dituen eragile prestakuntza saioetan esku hartzea.

'ESKUAK ELKARRI'-RAKO HORMA-IRUDIAK

Hainbat elkartek egin gura duten *Eskuak elkarri* ikuskizunerako horma-irudi lehiaketa antolatu dute. Arrasaten bizi edo erroldatutako edozeinek esku hartu ahal izango du. Horma-irudien neurriak 50x70 zentimetro izango dira, kartelak nahitaez bertikala izan beharko du, eta euskarri informatikoan ere aurkeztu ahal izango da DIN A3 tamainako paperean. Derrigorrez honako testua izan beharko du: *Eskuak elkarri antzezlan*. Irabazleak 360 euroko saria jasoko du. Horma-irudiak apirilaren 15a baino lehen bidali beharko dira Txatxilipurdi elkartera.

LUDOTEKA IBILTARIA USAETXE PLAZAN

Bihar, zapatua, eta apirilaren 30ean, Txatxilipurdik ludoteka ibiltaria egingo du Usaetxe plazan. 11:00etatik 13:30era, herriko ume eta gaztetxoek jolasteko aukera izango dute, Txatxilipurdiko begiraleekin.

GONZALO IBAÑEZ/NUEVO CATECISMO CATOLICO TALDEKO BAXU JOTZAILEA

“Gustura gabiltza, eta ikusleak ditugun artean, aurrera jarraituko dugu”

IKER BARANDIARAN

Gaur, egubakoitza, Nuevo Catecismo Catolico talde donostiarrak eta Adult Oriented Punk talde madrildarrak kontzertua egingo dute gaztetxean. Donostiar horiek askotan izan dira Arrasaten, eta baxu jotzaile Gonzalorekin izan ginen.

Nuevo Catecismo Catolico taldeak 12 urte egin ditu. Zelakoak izan dira urte horiek? Eta zelan dago taldea orain?

Egia esanda, oso azkar igaro dira, ia ohartu barik. Ez dugu horretan askorik pentsatzen. Musika egin gura dugun bitartean eta gustura egonez gero, aurrera segituko dugu. Hori bai, gure kontzertuak ikustera inor ez badoa, utzi egingo dugu. Urte hautan bost LP, mini-LP bat eta Safety Pins taldearekin erdibana beste disko bat kaleratu ditugu.

Taldea betiko moduan dago, denok bizirik eta ondo. Gainera, Eneko abesten hasi zenetik gurturago gaude.

Arrasaten askotan izan zarete. Harrera ona izan duzue?

Bai, Arrasaten, ospitale zaharreko gaztetxean askotan jo genuen. Beti oso ondo hartu gaituzte, ikusle dezente hurbildu dira eta urtez urte ikusle gehiago izan ditugu. Hala ere, aspaldi ez dugu Arrasaten jo. Azkena orain dela pare bat urte izan zen,



JOXE ARETA GOÑI

Nuevo Catecismo Catolico taldeak askotan jo du Arrasaten, eta kontzertu onak eman ditu.

Señor No taldearekin batera. Uste dut gaztetxe horren azkenetakoa izan zela.

Eta ezagutzen duzue egun dagoen gaztetxea?

Ez gara inoiz egon, baina oso ondo berba egin digute gaztetxeaz, eta badaukagu eszenatoki hori probatzeko gogoia. Daukagun onena emango dugu!

Zuekin batera joko duen Adult Oriented Punk taldea ez dugu ezagutzen. Zeintzuk dira?

Talde nahiko berria da, eta guk ere oraindik ez ditugu entzun, baina taldekide batzuk ezagutzen ditugu. Musikari beteranoak dira, eta honako taldeotan jo izan dute: Sex Museum, Wonderboys, Micromachines-en... Punk-rock

makarra samarra egiten dutela esan digute.

Punk-rock eta rock-and-rollerako garai onak direla uste duzue?

Bai, horixe. Eta ez bakarrik musika estilo horientzako, baita betiko punkarentzat ere. Gaur egun halako musikaren zale eta talde asko daude.

Gazte Topagunea 04 Itsasondon egingo dute

I.B.

Gazte Topagunea 04 antolatu dute. Itsasondon egingo dute, apirilaren 9an, 10ean, 11n eta 12an. Antolatzaileen esanetan, Gazte Topaguneak euskal gazteriaren aberastasunaren erakusleho izan gura du, “sortu, asmatu eta borrokatzen duen, eta eraikitzen gabiltzan Gazte Herria”.

Aurtengo Gazte Topagunearen leloa honako hau da: *Gu gera herria, egin dezagun bidea*. Izen bera duen kanta egin dute. Fermin Muguruza Kontrabandak grabatu du, hainbat musikariren laguntzarekin: Zaloe Kokein, Fernando Sapo, Sorkun, Xabi Solano, Aritz Lonbide, eta beste batzuekin. Lau egun horietan ekintza mordoa egingo dituzte.

Horretarako, hainbat gune egokituko dituzte: Kafe karpa, Zinema karpa, Musika karpa, Komunikazio gunea, Rokodromoa, Bokata gunea, eta beste batzuk.

MUSIKA IZANGO DA PROTAGONISTA

Ohikoa den moduan, aurten ere musika izango da Topaguneako protagonista garrantzitsuenetako bat. Besteak beste, honako talde-

ek joko dute: Audience, Non Demontre, Selektah Kolektiboa, Kuraia, Dirties, Captain Nemo, Petti, Lor, Betagarri, Kauta, Fermin Muguruza Kontrabanda, Su Ta Gar, SA, Berri Txarrak, eta abarrek. Baina, musikaz gain, gauza gehiago egongo dira.

Gazte Topagunean lau egunak egiteko bonoak dagoeneko salgai daude ohiko lekuetan.

Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak beirina eta kristalak osagaiak

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

BEHEKODENDATIK

Ana Landa

PUBLIDENAK

XABIER URZELAI

Ana oin dala hamasei urte hasi zan publizidade kontuetan lanien. Etxien hasierako urtietan, gero Eroskin jarri euen lelengo lokala, eta Mankomunitateko lokaletan be egon zien. Oin dala urtebete, soziuekin batera, Arrasate pasealekuen ipiñi euen lokala, eta oso gustora dau.

Ze falta jako Mondragueri?

Musikie kalien.

Eta, ze dauko ona?

Herri lasaixe dala.

Ze falta jatzu zeuri?

Pertsona ezagune izetie. Famoso izen gureko neuke.

Eta, ze dauketzu sobran?

Kiluek.

Pelikula bat. Liburu bat.

Musika talde bat.

Mortadelo y Filemón / El coraje de ser tu mismo / Mago de Oz.

Momentu honetan nora juengo zitzake gustora?

Varaderora.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Umiei jaten emutie; egunero burruka baten ibiltten naz.

Tranpan ibiltteketan norbaittekin, zeñekin?

Tranpan ibiltteko bada, ezagune ez dan bateron batekin. Bestela, harrapau egingo gaittue-eta.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Jentie.

Denbora librien ze egitten dozu?

Berba asko.

Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Viñaspre herrixe, Araban.

Ze leiduko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Mondraguen pelikula bat grabau biher dauela, eta estrak biher dittuela.

Ze lan egitten dozue Publidena-en?

Publizadiekien relaziñue daukien gauza asko egitten dittugu. Orokorrien, baiñe, enpresendako publizadiek egitten dogu; enpre-



"Publizidade ona egittie ez da gatxa, baiñe ondo enfokaute egon biher dau; hor dau asuntue"

sako erregaluetan publizadiek ipiñi, adibidez.

Ze erregalauko zeuke zeuk?

Edozer gauza, baiñe pertsonalizaute egon daille.

Publizidade ona egittie ez da izengo errex.

Ez da gatxa. Kontue da gure dozune ondo enfoketie. Klientiek hartu gure dozun, klientien fidelidadiek utsi... Gauza bakotzak publizidade diferentiek eskaketan dau, eta horretan asmatu biher dozu.

Badauket lagun bat neska asuntotan publizidade apur bat biher dauena.

Nik hor ezin neike gauza haundirik egin. Hala be, nesken artien

"Guk edozein artikulon gainien ipintten dogu publizadiek, problema barik"

atentziñue emun gure badau, metxeroz disfrazauko dot, eta, akaso, zeozer lortuko dogu. Horretarako, baiñe, beste agentzia batzuk dauz. (Barriek)

Publizidadeko artikuluen erakusketiek be badauketue hamen.

Bai. Hona etorritz gero, klientiek gutxi gorabehera zer gure dauen ikusi leike. Hamenguez gain, baiñe, katalogo mordue daukogu.

Saltzeko orduen, publizadiek zenbateraiñoko inportantzia dauko?

Lehen esan dogun moduen, publizadiek ondo enfokaute badau, inportantzia haundixe dauko.

NIREBIDAIAHURA/ Bittor Iñarra

Hego Afrikara / 2001eko abuztuan

Bittor neskalagunarekin, Jasonerekin, batera joan zen Hego Afrikara, hilabete pasatzeko asmoz. Bidaia larregi prestatu barik joan ziren, astebete lehenago Internet bidez Johannesburgoko hotel baten bi egunerako lekua hartuta: "Johannesburgora iritsi eta lehenengo egunean ez genuen gauza handirik egin. Ez da leku segurua, eta etxe guztiak hesiz jositau daude, kartzela handi bat izango balitz moduan".

Hiri hori atzean utzi eta bidaiari ekin zioten: "Backpacke batera joan ginen (aterpetxe modukoa) eta konturatu ginen bidaiatzeko erraztasun guztiak ematen zituztela: bidaia antolatuak, beste aterpetxeen gaineko informazioa, autoa alokatzeko aukera...".

Bikote arrasatearrak autoa alokatu eta Johannesburgotik lauzpabost ordura dagoen nati-boen herrikka batera joan zen: "Emakumeek lepoa luzatzeko uztaiez egindako lepokoak zeramatzaten; herri ezaguna da, baina turismorako gertatuta dago". Handik Kruger parke-rako bidea hartu zuten: "Bost egun inguru egin genituen Kruger parkean (19.000 kilometro koadro ditu parke horrek). Parke barruan autobusean ibili ginen, eta esperientzia eder-rra izan zen. Lo egiteko hesiz inguratutako zonetan sartzen ginen. Hemen animaliak dira kaiola barruan egoten direnak; han, berriz, gu geunden kaiola barruan".

Parke barruan gauzez ere ibili ziren: "Jeep-ak hartu eta jeep-aren aurrealdean gidari batek foku handi batekin nora begiratu esaten zigun. Ikustekoa da hango gidari-riek zelako ikusmena daukaten. Helburua *The big five* edo bost animalia garrantzitsuenak ikustea da: elefantea, errinozerontea, bufaloa, lehoia eta gepardoa. Oihanean genbiltzala, lehoi bat ikusi eta autoekin inguratu genuen. Halako batean, gidari bat autotik atera eta lehoia ukitu zuen; erabat harrituta geratu nintzen. Eta guk auto-ko leihatilak ere ezin genituen jaitsi!". Datorren astean ere Bittor eta Jasonekin izango gara.



"Krugerren, gidari batek 'jeep'-etik irteten eta lehoi bat ukitu zuen"

XABIER URZELAI



Elefanteak ikustea da Kruger parkean helburuetako bat.

elkarrekin kantari

Euskal kantak gustoko badituzu
zatoz gurekin abestera!

Babesa:
Arrasateko Udala, Ibai-Arte eta Mondragon Hotela.

Lehenengo saioak:
MONDRAGON HOTELean

Martxoaren 28an (domeka)
Apirilaren 4an (domeka)

arratsaldeko 6 etan
Itziar Zamora, Donostiako
Intxaurren eta Amarako
kanta-saioen sustatzailearen eskutik.

ZAHARREN ETXETIK



Argazkian, AFAGIko presidente Koldo Aulestia; Arrasateko AFAGIko arduradun Serapi Aldazabal, eta Aita Menniko Joxe Ezkerra.

AFAGIko arduradunek batzar informatiboa egin zuten Monterronen

IKER BARANDIARAN

Astelehenean, AFAGI (Gipuzkoako Alzheimerdun Gaixoen Senitartekoen Elkarte) batzar informatiboa egin zuen. Elkartearen gaineko azalpenak eta alzheimeraren gaineko argibideak eman zituzten.

Astelehenean, herritar asko batu ziren AFAGI elkarteko arduradunen azalpenak entzuteran, Monterron jauregian. Honako lagunek berba egin zuten: AFAGIko presidente Koldo Aulestia, Arrasateko AFAGIko arduradun Serapi Aldazabalek, eta Aita Menniko psikologo kliniko Joxe Ezkerrak, hain zuzen ere.

Lehenik eta behin Koldo Aulestia AFAGIren nondik norakoak azaldu zituen, eta urtean elkarteko presidente izan den Edurne Etxabe arrasatearraren lana goraiatu zuen.

1991n, alzheimerre zuten gaixoen batzuen senideek AFAGI sortzea erabaki zuten, gaixotasun horren gainean gehiago jakiteko

eta elkarri laguntzeko. Bazkideek urtean 36 euro ordaintzen dituzte. Horrekin, ekarpen pertsonalekin eta erakundearen laguntzarekin finantzatu da elkarte.

SENIDEEI LAGUNDU

Koldo Aulestiak azpimarratu zuen gaixoei laguntzeaz gain,

horien senideei ere lagundu behar zaiela. "Ordu asko igarotzen dituzte gaixoei laguntzen, eta euren dako aisialdirako denbora hartu behar dute". Hori bermatzeko, AFAGI boluntariora programa antolatu du, eta boluntario horiek senide horiek ordezkatuko dituzte zaintza lanetan.

Gaur egun, AFAGI senideek eta profesionalak osatzen dute: gizarte-laguntzaileek eta bestelakoek. Boluntarioei garraioa eta antzeko gastu guztiak ordaintzen dizkiete.

AFAGIko arduradunen esanetan, 2002an, EAEn, 24.200 lagunek zuten alzheimerre. Eta zenbaki horiek gorantz doaz. Horregatik, ondorioztatu dute dementzia horrek geroago eta familia gehiago eragiten dituela. AFAGI gaixoen eta senideen bizitza kalitatea hobetu gura du. Senideei behar duten laguntza guztia eskaini gura die, baita aholkua eman ere. Modu berean, gizarte sentsibilizatu gura du, eta erakundeek behar dituzten eskaerak egiten ditu. Bazkide ez direnei ere laguntzen die.

Arrasatearrek nor jo behar dute?

Arrasateko AFAGIko arduradun Serapi Aldazabalek azaldu zuen Arrasate pasealekuaren 3. zenbakian dutela egoitza, eta eguaztenero, 16:30etik 18:00etara hartzen dituela bisitak.

Horrez gain, hileko lehen eta hirugarren eguenetan autolaguntza taldeak batzen dira, 16:30etik 18:00etara.

Jo elkartera informazio edo laguntza bila!

Abaroa erretiratuen elkarteak ez du onartu Udalak eskainitako egoitza

Orain dela gutxi, Udalak erabaki zuen Iturbide egoitza txiki gelditu zela. Arazo hori konpontzeko, Iturbide egoitza dagoen eraikin berean, justu azpialdean kokatuta dagoen Abaroa erretiratuen elkarteak lekuz aldatzea erabaki zuen.

Udaleko ordezkariak Abaroa elkarteko arduradunekin batzar batzuk egin dituzte, hori guztiori eztaba ditzeko.

Udalaren asmoa da aurtengo abenduan Abaroa elkarteak gaur egun daukan egoitza hustea, eta toki hori Iturbide egoitza handitzeko egokitzea, herriko zaharren egoitza txikiegia gelditu da eta. Are gehiago, orain dela

hilabete batzuk Udalak erabaki zuen Iturbide egoitza birmoldatu beharra zegoela, eta orain aditzera eman duten leku falta hori ikerketa horren ondorioetako bat da.

Astean, Udalak Abaroa elkarteko ordezkariak ordezkari egoitza zein izango litzatekeen azaldu die. Elkarteko ordezkariak ez zaie ordezkari tokia gustatu, eta ezezkoa eman diote Udalari. Erretiratuen elkarteko ordezkariak esanetan, ordezkari egoitza hori txikia eta baldintza kaskarrekoa dela esan dute.

Abaroa elkarteak bi mila bazkide inguru ditu, eta herrian dagoen erretiratuen elkarte handiena da. Eztaba ditzaten jarraituko dute.



Abaroa elkarteak eta Iturbide egoitza eraikin berdinean kokatuta daude.

JAKINGARRIAK

Ergonomia eta gorputz jarrerak

Arrasateko Hirugarren Adineko Institutuak minusbaliotasunak dituzten lagunen ergonomiaren eta gorputz jarreraren gaineko ikastaroa antolatu du. Ikastaro hori osasun edo gizarte zerbitzuetan lan egiten dutenei zuzenduta dago. Martxoaren 29an, 30ean eta 31n eta apirilaren 1ean, 2an, 5ean eta 6an egingo dute, Saiolanen, 15:00etatik 18:00etara.

Peñiscolara joateko txartelak

Abaroa elkarteak Peñiscolara antolatu duen bidaiarako txartelak eskuragarri daude oraindik. Elkarteak hiru autobus hartu ditu; beraz, guztira, 165 lagunendako lekua dago. Deialdia ibarreko erretiratu guztiei egin diete. Interesatuak 270 euro ordaindu beharko dituzte. Horren barne egongo dira bidaia, lau izarreko hotela, bidaia eta jatordu guztiak.



Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkia

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20



ONATI
Ixiar Txinturreta
Martxoaren 23an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak eta gurasoak.




ONATI
Ekhiñe Mendi
Martxoaren 21ean, 4 urte.
Zorionak! Etxekoak eta lagunak.



ARRASATE
Garazi Barberan
Martxoaren 22an, 12 urte.
Zorionak! Familiakoen partetik.



ARETXABALETA
Lorea Legazpia
Martxoaren 18an, 7 urte.
Zorionak! Familiakoen partetik.



ESKORIATZA
Maddalen Antuñano
Martxoaren 13an, 12 urte.
Zorionak! Etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Aitor Antuñano
Martxoaren 23an, 15 urte.
Zorionak! Etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Felix Arriaran
Martxoaren 30ean, 80 urte.
Zorionak, aitaita! Txomin eta Oxel.



ARRASATE
Ainhoa Vicente
Martxoaren 24an, 14 urte.
Zorionak! Gurasoak eta anaia.



ARRASATE
Julen Larrañaga
Martxoaren 25ean, 7 urte.
Zorionak! Gurasoen partetik.



ARRASATE
Ane Otxandiano
Martxoaren 28an, 6 urte.
Zorionak! Maite zaitugunok.



ARRASATE
Joxe Agirre
Martxoaren 26an, urtebetetzea.
Zorionak, gazte! Lagunen partetik.



ESKORIATZA
Maite Garriet
Martxoaren 29an, 5 urte.
Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Eneko Canelo
Martxoaren 27an, 7 urte.
Zorionak! Gurasoak eta Naiara.



ARRASATE
Maria Bergaretxe
Martxoaren 23an, 64 urte.
Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE
Roberto Frutos
Martxoaren 26an, 24 urte.
Zorionak! Nuria eta Txalao.



ARRASATE
Ion Iriarte
Martxoaren 22an, 21 urte.
Zorionak, Fagorko etorkizuneko lehendakari!



ARRASATE
Bixen Calzon
Apirilaren 4an, 24 urte.
Maite zaitut. Rakel.



ARETXABALETA
Maika Herrero
Martxoaren 27an, urtebetetzea.
Zorionak! Anai-arrebak.



ARRASATE
Pilar Barbero
Martxoaren 28an, urtebetetzea.
Zorionak, Seme-alabak eta bilobak.



ARRASATE
Julen Arkauz
Apirilaren 1ean, urtebetetzea.
Zorionak, munduko osaba onenari!

Adi! Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.

Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 posta - kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

EZETZASMATU



Zela deitzen zen argazkian agertzen den antzerki-taldea?
Arrastoa: "alproja" samarrak ziren.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Conejo lixiba
Litroko botila

0,58€ 97 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

NEREA URIBETXEBARRIArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Nerea!

Galderen erantzun zuzena:

Maala kalean.

ARRASATEKO HISTORIA

Iturripe zelaia eraiki eta inauguratu zutenekoa

'PEQUEÑA HISTORIA DEL...'/ J. LETONA

Futbolaren historiarekin jarraituz, oraingo honetan Iturripen egin zuten aurreneko futbol zelaia-aren gaineko kontakizuna egingo dugu. 1923an egin zuten zelai hura, eta Circulo Tradicionalistaren baitan jaiotako talde bate-na zen: Goizeko Izarrarena.

Genaro Balantzategi Chico Moreno-ren lurretan eraiki zuten zelaia, Uribarzubi baserriaren atzean; gaur egun, Eskola Politeknikoa dagoen leku inguruan. Iturripeko gaur egungo futbol-zelaiarekin alderatuz gero, zahar-raren kokapena erabat bestelakoa zen: ateetako bat Gorriko baserrira igotzeko bidearen azpi-ko aldean zegoen; eta bestea Aramaio erreka-aren parean. Iturri-pe izena ipintzeko arrazoi bat ere izan zuten: Gorriko bidean metal-ura zuen iturri bat zegoen; futbol-zelaia iturriaren azpian zegoela-eta ipini zioten Iturripe. Txikia zen zelaia: 95 metro luze eta 60 metro zabal. Gainera, arazo dezente izan zituzten ur filtrazioekin. Hori konpontzeko zera egin zuten: futbol-zelaiaren erditik eta ate batetik bestera trintxera bat zabaldu zuten. Eta gero, abarren



Taldean jokatzen zuten hamaikakoaren argazkia; txaketaduna, berriz, Jose Ramon Mendizabal epailea zen.

sortekin bete zuten trintxera hura.

INAUGURAZIOA

Santiago egunean inauguratu zuten Iturripeko zelaia: 1923ko uztailaren 25ean. Real Union eta Barakaldo taldeen artean par-

Metal-ura zuen iturri baten azpiko aldean zegoela-eta ipini zioten Iturripe izena

tidua jokatu zuten. Real Unionen Goizeko Izarrako bi jokalarik parte hartu zuten; eta Barakaldon, Athleticen zenbait jokalarik.

Goizeko Izarra taldearen gainean, aipatzekoa da urte gutxi egin zituen arren, talde dezente

onen kontra jokatu zuela: Mondra, Eibarko Altza Praka... Honako jokalarik hauek osatzen zuten Goizeko Izarraren hamaikako titularra: atean, Antonio Altube; defentsan, Joaquin Atxa eta Francisco Olabe; erdian, Jose Madinabeitia, Victor Bastida eta Dionisio Mendaratx. Eta aurrean, Ramon Usatorre, Felix Alberdi, Juan Jose Etxabe, Jose Galdos eta Alberto Aranburuzabala.

PASADIZO BAT

Arrasateko futbolaren historian badira kontatzeko moduko pasadizo batzuk. Adibidez, sasoi hartan, udan, 06:30ean entrenatzen ziren futbolariak. Gero errekan bainatu, ogitartekoa jan eta lane-ra joateko. Hala, taldeko zaleen artean, Gerardo Gordobil izeneko bat (Madariaga botikakoa) berandu ibiltzen zirenen etxeetara joaten zen haiek esnatzera. Haietako batek, familia-eta ez molestatzeko, oso sistema berezia asmatu zuen: sokatxo bat lotu kamisoari eta soka balkoitik bota. Gordobilek sokatik tiratuta esnatzen zuten Ubago. Baina, behin, Ubagok kamisoia aulkian utzi zuen eta Gordobilek tiratu zuenean, kamisoia jausi zitzaion balkoitik behera. Sekulako sustoa hartu zuen, balkoitik behera zerbaite zetorkiola ikusita!

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko martxoaren 26a / 102. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Bizente Goikoetxea musikariaren urteurrena ospatzeko ekitaldiak

UBANE MADERA

Aurten, Bizente Goikoetxea aramaioarra jaio zela 150 urte beteko dira. Horren data esanguratsua ospatzeko, ekimenak antolatzen dabilta herrian. Mertxe Mondragon alkateak jakinarazi digu, besteak beste, apirilaren 25ean kontzertua izango dela Gasteizen.

Aramaioko seme kutun Bizente Goikoetxea jaio zela 150 urte beteko dira aurten. Hain zuzen ere, 1854ko apirilaren 4an jaio zen, Ibarako Morron edo Portua izeneko etxean. Hala, herriko musikari garrantzitsu horren urteurrena ospatzeko asmoa dute herrian. Dagoeneko ezarri dute data bat: apirilaren 25a. Eta kontzertuak egiteko hiru abesbatzaren parte hartzea lortzeko ahaleginetan dabilta. Batetik, eta Bizente Goikoetxeak Valladolidekin izan zuen lotura dela-eta, hango unibertsitateko abesbatzarekin harremanetan ibili dira, apirilaren amaieran hona etor daitez. Bestetik, Gasteizko Araba abesbatzarekin ere egin dute berba. Asmoa da bi abesbatza horiek kontzertua egitea, Bizente Goikoetxeak egindako lanean oinarrituta. Hori Gasteizen izango



AYER Y HOY DEL VALLE DE ARAMAIONA

Erljioarekin lotutako musika landu zuen Bizente Goikoetxeak.

da. Baina, jakina, Aramaion ere egingo dute ospakizun ekitaldia.

MEZA ETA KONZERTUA

Hala, zehaztasun guztiak lotuta ez badaude ere, Mertxe Mondragonek azaldu digu asmoa dela meza berezia egitea Aramaion. Besteak beste, Sabin Salaberriak parte hartuko du, baita Bizente Goikoetxea abesbatzak ere. Eta mezaren ostean, kontzertua anto-

latu gura dute, Valladolideko eta Gasteizko abesbatzekin. Era berean, gaur egun elizpean dagoen Bizente Goikoetxearen omenezko plakaren ondoan berri bat ipini gura dute.

Hori guztia antolatzen laguntzen Foru Aldundia, Vital Kutxa eta Aramaio Udal dabilzala jakinarazi digute; baita Jose Maria Oizartabal eta Aramaio abesbatza ere.

Aurrekontuak eta zenbait mozio osoko bilkuran

U.M.

Atzo, eguena, osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak. Landu beharreko gaien artean, besteak beste, aurtengo aurrekontuak, bi mozio eta alegazio bat izan zituen aztergai udalbatzarrak.

Ezohiko egunean baina ohiko ordutegian egin zuen udalbatzarrak martxoari dagokion bilera. Gainera, mahai gainean gai inportanteak izan zituzten lantzeko. Tartean, aurtengo aurrekontuak. Edozelan ere, albiste hau idaztean batzarra egin barik zegoenez, xehetasun gutxi eman genezake oraingoz. Kontuak kontu, aurre-

ratu digutenez, aurrekontuekin batera, udal ordenantzen zerga-tasa eta herri prezioen aldaketari hAMALauk egindako alegazioa ere aztertze zuten udalbatzarrak. Baita, Tolosaldeko Marnu Azkarate preso politikoarekin lotutako pare bat mozio ere.

Mozioetako bat hAMALau taldeak aurkeztu zuen. Oro har, preso gaixo dagoela-eta, haren askatasuna exijitzen dute, eta besteak beste, hainbat alderdik eta komunikabidek duten jarrera salatu gura dute. Beste mozioa, berriz, Udalak aurkeztu zuen. Hark ere presoaren askatasuna exijitu zuen eta besteak beste, Espainiako Gobernuak erabiltzen duen espertxe-politika salatu zuen.

LABUR

Elbarriendako laguntzak eskatzeko aukera, Gizarte Ongizaterako Erakundearen eskutik

Elbarriendako laguntzak eskatzeko deialdi publikoa egin du ongizaterako foru erakundeak. Honako laguntzak ematen dituzte: pertsonak euren kabuz moldatzeko; etxeko laguntza teknikoa (zaintza eta garbiketa pertsonalerako); etxeko lanak egiteko; ingurukoekin harremanak sustatzeko (komunikaziorako eta informaziorako); joste-etorriak egiteko gaitasuna areagotzeko; laguntza espezializatua; lanbide sustapena eta bestelako laguntza bereziak eta osagarriak. Apirilaren 29a baino lehen egin behar dira eskaerak.

Andere Arriolabengoa bihar Aramaion, bertsolari txapelketan

Bihar, zapatua, hitzordua dute bertsolariak eta bertsozaleek herriko kultura etxean. Arabako II. Bertsolari Txapelketaren barruan, aurreneko finalerdia jokatu dute-eta. Iluntzean, 19:00etan hasiko da lehiaketa. Eta, saio horretan bi aramaioarrek parte hartuko dute: batetik, Lierni Altunak, finalerdia aurkezten. Eta, bestetik, Andere Arriolabengoa, gainerako bertsolariarekin lehiatzen. Izan ere, finaldirako bigarren postuan sailkatu zen Aguraingo kanporaketa saioan. Hain zuzen, irabazlearengandik (Alberto Martinez

Beitto) puntu bakarrera geratu zen aramaioarra.

Aipatutako bi bertsolari horiekin batera, honako bost bertsolariak parte hartuko dute bihar: Zigor Enbeitak, Asier Otamendik, Ruben Sanchezek, Orlando Arreitunaindiak eta Ricardo Gonzalez de Duranak.

EGIN BEHARREKO LANA

Andere Arriolabengoa kontatu digunez, honako lana egin behar dute bihar: besteak beste, ofiziala zortziko txikian, ofiziala zortziko handian, ofiziala hamarrekotako txikian eta gero,

bakarkakoa, kartzelako lana, hain zuzen ere.

BIGARREN FINALERDIA

Hala, Aramaion puntu gehien lortzen duena sailkatuko da Gasteizko finalerako. Baina, ez da bakarra izango, beste finalerdi bat ere jokatu dute-eta. Apirilaren 3an izango da, Laudioko Lanbide Heziketako Udal Eskolan (Aiarra). Han, Manex Agirrek jardungo du. Honako bost bertsolarien kontra egin behar du: Alberto Martinez Beitto, Serapio Lopez, Juan Mari Juaristi, Iñaki Viñaspere eta Oihane Perea.



ANDER FERNANDEZ DE BERTSO

19:00etan hasiko da finalerdia, tartean Andere Arriolabengoa lehiatuko da.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiaiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoaren duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BAÑERAKOEN EMAITZAK

Joan den asteburua berezia zen arren, Bañera Kirol Elkarteko neska-mutikoez partiduak jokatu zituzten zapatuan. Eta, gainera, mutilen taldeak emaitza polita ekarri zuen etxera: 0-11 irabazi zion Diocesanas Cano taldeari. Bañerako ordezkariek esan digutenez, aurkari erraza izan zuten eta horregatik lortu zuten horren emaitza ikusgarria. Neskei dagokienez, berriz, Olabide taldearen kontra jokatu zuten eta launako berdinketa lortu zuten. Bi taldeek oso parekatuta jokatu zuten esan digute, eta aramaiorak aurretik ibili ziren arren, zoritxarrez, azken unean berdinketaren gola egin zieten. Oraingo asteburuari begira, bihar, neskek 10:00etan dute hitzordua, Aramaion. Lan eta Jolas taldea izango dute aurkari. Eta mutilek, goizeko hamaiketan, Canciller Ayala taldea hartuko dute.

BARIKUKO ZINEMA

Oraingo honetan, D. Lean zuzendariaren *El puente sobre el río Kwai* filma emango dute.

Maider Unda ez da izango Greziako Olinpiadetan

UBANE MADERA

Maider Unda borrokariak ez du lortu Greziako Olinpiar Jokoetarako sailkatzea. Asteburuan jokatu du kanporaketa. Orain Aramaion da, Oletan, eta hantxe geratuko da, aurrera begira zer egin erabaki arte. Izan ere, borrokan segitu nahi duen arren, ez du Madrilerantz itzuli nahi.

Oraingo asteburuan jokatu du Maider Undak Greziako Olinpiar Jokoetarako sailkatzeko proba, Madrilen. Zozketa egin, eta Holandako, Hungariako eta Mongoliako aurkariak tokatu zitzaizkion.

Kontatu digunez, Holandaren kontra jokatu zuen lehenengo eta irabazi egin zuen; Hungariako ordezkariekin borrokatu zen gero, eta hari ere irabazi egin zion. Baina Mongoliakoaren kontra galdu egin zuen, azkeneko minutuan, gainera. "Gainera, ez zegoen maila alturik borrokalarien artean, hori da txarrena". Zorte txarra izan zuen, bada, Maider Undak asteburuko saioan. Esan digu hasieran pena handia eman ziola, batez ere Olinpiar Jokoe-

tan parte hartzeko aukera izan duelako. Dena dela, aurrera egingo duela ere esan digu.

Hori bai, sailkatu ez izan horrek erabat aldatu dio etorkizuna Oletako borrokalariari. Izan ere, ADO beka abenduan bukatu zitzaion, eta hura berriro eskuratzeko Olinpiar Jokoetarako behar zuen sailkatu. Horren ondorioz, aurten ezin izan du ADO bekarik lortu.

MADRILEN GUSTURA EZ

Edozelan ere, jakinarazi digu Madrilen ez zegoela gustura. Eta borrokarekin segitzeko gogo duen arren, ez duela Madrilen bizi nahi. Hala, oraindik ez daki zer egingo duen etorkizunean. Hemen, betiko entrenatzailearekin segitzeko aukera duela esan digu, Luis Crespo gasteiztarrekin. Eta datorren urteari begira ez duela aspertzeko astirik izango, besteak beste, Mediterraneoko Jokoak, Europako Txapelketa eta Munduko Txapelketa izango direlako. Edozelan ere, oraingoz atsedean hartuko du eta ez dauka bestelako txapelketetan eta pentsatzeko eta parte hartzeko gogorik.



Zuhaitz gehiago Kurtzetan

Joan den bariku goizean, Kurtzetan 50 umek bat egin zuten aurtengo Zuhaitz Eguna ospatzeko asmoarekin. Aitzurra hartu eta hantxe ibili ziren esandakoak adi-adin entzun eta zuhaitz adaxka gazteak landatzen.

Eskolako gaztetxoak, berriz, herrian zehar ibili ziren Joxe Oruna herriko lorezainaren gidaritzapean landareen eta zuhaitzen berri ikasten. //JULEN IRIONDO

BOTEPRONTOAN/ Andere Arriolabengoa · Bertsolaria

"Gizonen monopolioa bukatu egin da; neskak hasi gara, apurka eta kostata, baina hasi gara"

Aramaioko bertsolarien artean, bada neska bat urteak adaramatzala plazetan bertotan. Aurten, gainera, Arabako Bertsolari Txapelketako finalerdietako batera iristea lortu du, oraingoz. Andere Arriolabengoa da bera, Zuzenbide Publikoko ikasle gaztea:

Zelatan Zuzenbide Publikoko ikasle bat bertsolari?

Bertsotan karreran baino lehenago hasi nintzen.

Zela izan zen hori?

Behin Manex etorri zen esaten hasi behar zela bertso eskola Aramaion. Hark konbentzitu gintuen joateko. Harrezkero sei urte pasatu dira.

Eta, etxera joan eta bertsolari izan nahi zenuela esatean...

Nik uste dut ez nuela hala esan. Bertso eskolan hasi behar nintzela esan nien, eta etxean gustura. Aitari eta beti gustatu izan zaizkie euskal abestiak eta kantu zaharrak... Gustura hartu zuten ikustea behintzat alabak zaletasuna bazeukala. **Azkenaldian geroago eta neska gehiago ikusten da bertsotan. Badago horren arrazoirik?** Bertsolaritzaren historian zehar erreferentzia guztiak gizonenak izan dira. Eta orain urte gutxi hasi ziren neskak, eta



orain, haien erreferentzia ere badugu: Oihane Enbeita, Maialen Lujanbio... Nik uste dut gizonen monopolioa bukatu egin dela. Neskak hasi gara, apurka-apurka, kostata, baina hasi gara.

Orain igartzen duzue desberdintasunik neskak zaretelako?

Kopuru aldetik mutilak askoz ere gehiago dira. Dena dela, uste dut jendea hasi dela aurreiritziak kentzen eta berdin-berdin deitzen diotela neska bati edo mutil bati bertso saio baterako. Ez dut uste gaur egun hori arazoa denik.

Arabako txapelketako finalerdia jokatu duzu bihar, zela aurreikusten duzu saioa?

Zaila izango da. Konpetentzia handia izango da, gainera Aramaion da eta niretako horrek presio estra-edo badauka. Baina, kanporaketak ondo joan ziren, eta espero dut

finalerdian egindako saioarekin gustura gelditzea eta hori egiteko kapaz banaizela uste dut. Ea nerbioak ez diren oso handiak izaten...

Horren harira, zela preparamen duzu halako saio bat?

Esperientziak egiten du asko. Zenbat eta jendaurreko saio gehiago hobe; nahiz eta txapelketetan beste ardura bat eta beste nerbio mota batzuk izan. Pasatutakoak balio izaten du. Eta saiatzen naiz txapelketaren unera arte entrenituta egoten.

Zuk esperientzia handia duzu?

Kontua da orain arte bertsolari gazteek txapelketetan ibili behar genuela ezagunak izateko eta gero, bestelako saioetara deitzeko. Berriz, aurten, Bizkaian iaz hasi ziren moduan, bertsolari gazteak tabernetan eta kantuan hasi gara; hilean pare bat saio-edo ziurtatuta ditugu. Gazteok antolatzen dugu guztia, eta ez dugu kobratzen.

Zuk zein ikusten duzu txapelketako irabazle?

Gurako nuke Oihane Perea izatea, neska delako eta beti atarian geratu izan delako... Bestela, Manex. Gaztea da eta beste freskotasan eta bizitasun bat ematen du... Gainera Manex koadrilakoa da, eta lehengusua... (Barre).

"Birritan izan naiz eskola arteko txapelketetan; 18 urterekin hasi nintzen Arabakoan"


"Tabernetako saioa bukatu ostean jendea datorrenean esaten gustura egon dela, oso pozgarria da"

ERRETRATUZAHARRA

Tuberkulosiari
aurre egiteko
anbulatorioa

Gehienok entzunda izango duzue Arrasaten tuberkulosiaren kontrako kontsultategi edo ambulatorioa izan zela garai batean. Arrasateko Industria Zerbitzu Antituberkulosoaren izena ipini zioten eta 1946an zabaldu zuten, herriko hainbat enpresaren dirulaguntzei esker. Kontua da II. Mundu Gerraren ostean tuberkulosi izurritea izugarri zabaldu zela Gipuzkoan. Eta Arrasaten, gaixotasunak jotako lagun asko zegoela. Horregatik zabaldu zuten ambulatorioa, frantziskotarren komentuaren alboan.

Anbulatorioa zabaldu zutenean, On Calixto Ieregi, On Salvador Bravo eta On Roman Balantzategi medikuak hasi ziren lanean, Sor Agustina mesedeetako lekaiarekin batera. Hain zuzen ere, ambulatorioa inauguratu zuteneko argazkia ekarri dugu oraingo astean. Ikusten duzuen moduan, ospitale barruan dago aterata. Hala, ezkerrean dagoen bata zuridun gizonezkoa, huraxe zen On Salvador Bravo medikua. Haren ondoan dagoena Domingo



Artzamendi da, sasoi hartako Arrasateko alkatea. Eta, bedeinkapena ematen, orduko parrokoa dago: On Jose Luis Iñarra. Azken horren gainean, esan beharra dago inaugurazioan bedeinkapena emateaz gain ambulatorioan lan handia egin zuela,

eta zabalik egon zen bitartean, egunero-egunero joan zela hara.

15 ohe ipini zituzten ospitale berezi hartan, eta 387 lagun sendatu zituzten. Hori bai, behin baino gehiagotan txiki geratu zitzairen eta gaixo asko kanpora bidali behar izan zituzten. 31 urtez

egon zen zabalik tuberkulosiaren kontrako ambulatorioa, tuberkulosi kasuak gutxitu ziren arte (1977).

Argazkia eta informazioa: ARRASATE PRESS
Urtea: 1946.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Zerrajera:
hobera aldatu
den lekua

Arrasateren motorra izan zen Zerrajera lantegia. Urteek aurrera egin duten neurrian, baina, lantegiak kanpoaldera eraman dituzte, eta beste batzuk desagertu egin dira. Zerrajera zegoen lekuan hainbat etxebizitza egin dituzte, eta oraindik asko daude egiteko. Arrasateko txoko hori asko aldatu da: etxeak, berdeguneak... Eta ibaia ere dezente txukunago dago.



≈ 1995

Urte hartan, EKI ekologista taldeak Deba ibaiaren egoera tamalgarria salatu zuen, eta hainbat proposamen egin zituen.



2004

Azken asteotan, herritar batzuek Deba ibaiaren egoera salatu dute. Dirudienez, oraindik ez dugu ingurunea behar beste errespetatzen.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA




Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Aretz

Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

UDABERRIAN ERE EGIZU KIROLA



AUKEA Kirol Erakundeak eskaintza paregabea du

Aukera berriak

- Sasoian egoteko gimnasia
- Aerobika
- Muskulazio Gela
- Fitnessa
- Igeriketa
- Igeriketa egokitua
- Hirugarren adinekoendako gimnasia
- Gutxitu psikikoendako gimnasia
- Jarduera fisiko-terapeutikoa

- Spinninga
- Aguagyma
- Tonifikazioa
- Bost egunerako programa
- Norbera zaintzea
- Konbinatuak:
 - aerobika + tonifikazioa
 - aerobika + spinninga
 - gimnasia + tonifikazioa
 - gimnasia + spinninga

INFORMAZIOA ETA IZENEMATEA: Musakolako kiroldegia. Elkano kalea 27
Tel.: 943 77 16 77. E-posta: aukea@arrasate-mondragon.net

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Munar 10 620 12 48 43

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorlora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma. 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37. 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) .. 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. 943 79 65 56

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16
- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22